

Txikira beti hordago!

Bertol Arrieta Kortajarena



Azaleko argazkia: “Txikira beti hordago!” (© Bertol Arrieta)

*Esaera zaharrei, kasurik ez
musean erregeak bota aurrena
zaldun eta txotak gero
txikira beti hordago!*

Joxe Ripiau (Txikira beti hordago.
Karpe Diem)

AURKIBIDEA

Gu ere topatu ginen, Marie	3
1491	18
Betty Boop-en terapia	25
What a wonderful world	42
Urte berri on, Oswald!	67
Igo gailua	81
Amodiozko gutuna	93

GU ERE TOPATU GINEN, MARIE

...porque todavía esperaba, porque todavía espero en este banco de la estación Chemin Vert...

J. Cortazar (Manuscrito hallado en un bolsillo. Octaedro)

Eta zera imajinatzen dut orduan: nitaz pentsatzen ari dela, eta kilometro asko daramatzala nire izena ezpainekin xuxurlatuz.

B. Atxaga (Gauero aterako nintzateke paseatzera. Obabakoak)

Edgar Quinet metro geltokian jaitsi, eta lur azalera atera nintzen. Geltokiaren izen bereko boulevard-ak Rue Delamure-rekin egiten duen bidegurutzean geunden geratuta. Gerard han zegoen ordurako. *Bonjour, Marie. Ça va? —zer moduz zaude?—*, esan zidan amultsuki. Gero, hiru musu eman zizkidan masailetan, eta paseoan abiatu ginen Edgar Quinet boulevard-ean behera. Hilero, azken igandean, arte-azoka bat izaten da boulevard honetan, Montparnasse-ko dorre luzearen begiradapean, eta giro polita egon ohi da. Koadroak, argazkiak, zeramika, kristala... Denetarik egoten da salgai. Turista nahiko ere gerturatzen da, azokarekin nahigabe topo eginda. Pariseko bista zerutiarrak gozatzeko intentzioarekin etortzen baitira gehienak, Montparnasse-ko dorrearen azken solairura igotzera.

Arte-azokari begiradaxo bat eman ostean, Montparnasse-ko hilerriaren parean tokatu ginen, eta hantxe sartu ginen paseotxo bat emateko asmoarekin. Paristar askoren pasealeku dira hiriko hilerri handiak —bai Montparnasse-ko hau, eta baita, esaterako, Père Lachaise hilerria ere—, kanpotarrei arraroa egiten zaien arren Parisekook hilerrietan paseatzeko dugun ohitura hau. Hiri handiko zaratatik at, bertan aurki daitekeen bake eta lasaitasun sentsazioarengatik izango da ziurrenik. Ez dakit. Turistak ere ez dira falta, halere, Pariseko txoko gehienetan bezala. Hilerrion kasuan, bertan lur hartuta dauden idazle, musikari eta beste pertsonaia famatuen hilobiak bisitatzera etorritakoak izaten dira gehienak.

Azaroa bere azkenetan zen, eta neguaren berehalako etorrerak hilerriko zuhaitz guztiak biluztu zituen ordurako. Hotz zegoen, eta Gerard eta biak kuxkurtuta gindoazen, ondo tapatuta geunden arren beroki eta bufanda eta guzti.

Gure lehenengo zita izan zen hura. Horrelakoetan, ez da jakiten zertaz hitz egin, eta horregatik, nik uste, lanari buruz hasi zitzaidan hizketan Gerard. Bera metro gidaria zen —da—, eta makina bat istorio kurioso zituen kontatzeko. Gogoratzen dut kontatu zuela anekdota graziosoren bat, barrez egon baikin. *Oso barre polita duzu, Marie*, esan zidan. Uste dut gorritu ere egin nintzela. *Eskerrik asko*, esan nion irribarrez —*merçi, Gerard*—, eta besotik heldu nuen.

Gero, ez dakit zergatik —agian, hilobi artean genbiltzalako—, baina gai serioagoa hartu zuen hizpide: Parisen gertatzen ari ziren suizidioei buruz aritu ginen. Egun haietan

agertu zen egunkarietan, nonbait. Agidanez, udazken hartan, suizidio kopuruak gora egin omen zuen nabarmen, eta azaro hura, datuak hartzen hasi zirenetik, historiako suizidio tasa altuena zuen hilabetea omen zen, alde handiarekin.

Julio Cortazarren hilobiaren aldamenetik pasa ginen. Hilobiaren aurrean bi neska zeuden erreztatzen-edo. Ahizpak ziruditen; hogeita hamar bat urtekoa, bai bata, bai bestea. Espainieraz ari zirela esango nuke. Bietako batek bere poltsa ireki eta adaxka bat atera zuen bertatik. Hilobiaren gainean kokatu zuen, poliki.

<<Hiru suizidiotatik bi, gainera —jarraitu zuen Gerard-ek—, metroan izan dira. Posible ote da? —saminduta zirudien—. Lehengo astean, bilera batera deitu gintuzten metrogidari guztiak. Gertatzen ari zena azaldu ziguten. Nonbait, metro geltoki batean, trenari itxoin, eta justu trena geltokira sartzen denean botatzen dute euren burua trenbidera suizidek. Ez ziguten ezbeharra nola eragotzi esplikatatu. Ezta pentsatu ere! Horren ordez, ezbeharra gertatzean jarraitu beharreko prozedura zein den azaldu ziguten. Atzetik datorren trena geldiarazi behar omen da segituan, bi trenek talka egin ez dezaten. Ez dadila, behintzat, ezbehar handiren bat gerta. Esan ziguten alarma orokorrerako botoia sakatzearen ordez, hobe dela denborarik galdu gabe telefonillotik abisatzea, eta adieraztea zein den ezbeharra gertatu den estazioa eta oztopatzen duen ibilbidea. Honela, linea horretako trenak soilik geldituko liratekeela, baina beste lineetako trenek eragozpenik gabe jarraitu ahal izango luketela martxan. Erraza dela; azkar egitea omen da gakoa. Gainera, brigada berezi bat prestatu dutela gorpua lehenbailehen erretiratzeko, eta ordu erdiko kontua izango omen da guztia berriz martxan jartzea. Itxoin besterik ez dugula egin behar, gorpua erretiratzeko duten bitartean. Eta, gero, lanera, ezer gertatu ez balitz bezala. >>

Begirada iluna zuen Gerard-ek. Beldurra ematen zuen pixka bat, baina, bestalde, bere hitzei xamurtasuna ere bazeruela iruditu zitzaidan.

<<Normala iruditzen al zaizu, Marie? —galdetu zidan. Zeharo erreta zegoen—. Esaidazu. Normala iruditzen al zaizu suizidioak ekiditeko irtenbide bakar bat ere ez proposatzea? Normala al da neurri guztiak suizidioa gertatu osterakoak izatea? Normala al da, Marie?>>

Minduta zegoen benetan. Ez zuen ulertzen agintarien jokaera. Nik ere ez nuela ulertzen esan nion. Baina ezin zuela ezer egin. Horretaz arduratzea zela egin zezakeen gauzarik okerrena. Kotsolatu nahi izan nuen. Ea zenbat linea zeuden galdetu nion, ea zenbat metro desberdinek egiten zuten ibilbide bera, bost minutu edo gutxiagoko aldearekin. Bazekiela ondo zorte txarra beharko zuela, kasualitate handia izango zela berari tokatzea. Ondo gogoratzen dut erantzun zidana: *Gu ere topatu ginen, Marie.*

Min egin zidan, momentuan, esaldiak. Gure enkontrua zorte txarrari egotzi ziola iruditu zitzaidan. Baina komentarioa aintzat ez hartzea erabaki nuen, hobebharrez. *Hartuko dugu kafe bat?*, esan nion gaia aldatze aldera. Ea suizidioen gai mikatza kafearekin, behintzat, goxatzea lortzen nuen. Baietz egin zidan buruaz.

Hurbilen genuen irteerara abiatu ginen. Bidean, Samuel Beckett-en hilobiaren aurretik pasa ginen. Hari errezatzen, ez zegoen inor. Bide nagusia utzi genuen, Rue Froidevaux-ra iristen zen bidezidorra hartzeko. Hor, hilobi ezezagunen eta almendrondoen artean, besotik tira zidan Gerard-ek, geratzeko esanaz. Eta musu eman zidan bat-batean. Dirdira zerien haren begiei. Negar egiteko gogoia balu bezala.

Gero, kafea hartzera joan ordez, Rue Froidevaux-eko hostel zakar batera joan ginen, eta maitasuna egin genuen. Gortina grisak. Pareta zikinak. Maindire hotzak. Gerard-en gorputz beroa. Horixe da 103. gela hartatik memorian geratu zaidana. Egun horretatik aurrera ez nuen berriz ikusi. Gaur arte.

II

Montparnasse-ko hura gure lehen zita izan zen arren, zazpi hilabete lehenago ezagutu genuen elkar Rue Bourgeois-eko modako pub hauetako batean. Vosges plazaren inguruan urte haietan sortu zen giroaren lekuko garbia zen pub hura. Garai hartan leporaino beteta egon ohi zen, eta, hura bezala, baita inguruko pub guztiak ere. Gay eta lesbianak izan ziren auzo hura modan jarri zutenak, baina denborarekin alde egin behar izan zuten handik, garaiko kantari famatu batek auzo hura aipatu, ezagun egin eta paristar guztiontzat erakargarri bihurtu zuenean. *La Bouche* izena zuen pub hark, *Ahoa*. Jadanik ez da existitzen.

Larunbat gaua zen, eta Sophie-ren urtebetetzea ospatzen ari ginen, Sophie bera, Ghissela eta hiruok. 33 konplitu zituen egun hartan —nik baino bat gutxiago—, eta xanpainarekin eta guzti ospatu genuen afaltzerakoan. *La Bouche*-n ere xanpaina edaten ari ginen —nahastea txarra omen-eta...—, Gerard gerturatu zitzaigunean. Harekin izan genuen elkarrizketa, hasieran, edozein larunbat gautakoa izan zen: topikoz eta txorakeriez betea. Baina Sophiek eta Ghisselak berarekin bakarka utzi nindutenean (halakoa zen gure paktua: alde egitea, gizonezkoari nor interesatzen zitzaion igartzen genuenean, interesatzen zitzaion harekin bakarka utzita. Eta ez zen oso zaila Gerard-ek nor zuen gustuko antzematea), tipo interesgarria zela iruditu zitzaidan: apala eta jatorra. Zertan lan egiten nuen galdetu zidan, eta interesa erakutsi zuen Haussmann Boulevard-eko arropa denda batean saltzaile lanetan nebilela erantzun nionean. Ea ze denda zen, ea egunen batean bisitan joan zitekeen, ea saltzaile ona nintzen... denetarik galdetu zidan. Gero, bera zertan ari ote zen galdetu eta metro gidaria zela erantzun zidanean, barre-atake bat izan nuen. Xanpainak ere izango zuen horretan, erruaren parte bat. Metro-gidaria! Ezin nuen geratu. Izan ere, ezagutzen nuen lehendabiziko metro-gidaria zen! Grazia egin zidan... Metroak gidatzen dituztenak, beti horretan egotea espero banu bezala. Kabinatik irteten ez diren sentimendurik gabeko pertsonak bailiran. Bizitzaz gozatzea zer den jakingo ez balute legez. Ez dakit. Sorpresan harrapatu ninduen.

Nire algarak ikusita, ez al nion sinisten galdetu zidan berak, irribarrez. Ez zituen, antza, nire barre-algarak txarrera hartu. Eta baietz esan nion, sinisten niola, baina grazia egin zidala, besterik gabe. Orduan non bizi nintzen galdetu zidan, ea zein metro-geltokitan geratzen nintzen etxeraterakoan. Porte D'Ivry zela esan nionean, han hasi zitzaidan, etxera eramaten ninduen lineako geltoki guztiak banan-banan errezitatzen. *Porte D'Ivry? Hori*

zazpigarren linea da, linea arrosa: La Corneuve-Mairie d'Ivry. La Courneuve, Fort d'Aubervilliers, Quatre Chemins, Porte de la Villette,... Nik ez nituen horiek guztiak ezagutzen, lineako lehen geltokietatik ez bainintzen sekula igaro, baina bai Chatelet geltokitik aurrerakoak, eta zur eta lur geratu nintzen haiek guztiak ere zuzen-zuzen errexitatu zituenean. *Chatelet, Pont Marie, Sully Morland, Jussieu, Place Monge, Censier Daubenton, Les Gobelins, Place d'Italie, Tolbiac, Maison Blance, Porte d'Italie, Porte de Choisy eta Porte d'Ivry! Etxean zara jada!* Irribarre egin nion, alai, eta ez jarraitzeko erregutu nion. Sinesten niola, eta ez niola berriz aurpegira barre egingo. Barkatzeko. Baina ez zegoen barkatzeko ezer. Bera ere gustura baitzegoen. Gero, geltoki guztiak gogoratzea ez zela hain zaila esan zidan, nik ere gogoratuko nituzkeela egunean hamar bat aldiz egingo banitu, hamabost urtetan zehar. Izenak gogoratzen txarra nintzela esan nion, *txarra naiz izenekin, Antoine*, eta barre egin genuen nire ateraldiaren kontura. Gustura sentitzen nintzen, eta bera ere hala sentitzen zela uste dut. Maitasuna egiten bukatuko genuela pentsatu nuen momentu hartan. Baina ez zen hala izan.

Hogei minutu hizketan egon ondoren, joan beharra zeukala esan zidan, *ea elkar ikusten dugun. Atsegina izan da zu ezagutzea*. Hasieran, gaizki hartu nuen horrela bat-batean agurtu behar hori. Eta kitto?, pentsatu nuen nirekiko, hemen bukatzen al da guztia? Baina metroarena aipatu zidanean, lasaiago geratu nintzen, azken finean, emaitza berdin-berdina zen arren. Gainera, agian elkarrekin oheratzea baino zerbait gehiago nahi zuela pentsatu nuen segidan, eta horrek asko poztu ninduen. *Beno, Marie*, esan zidan, *metro-gidari lanetan ari naizela elkar ikusten badugu, gidariaren kabinan nirekin bidaiatzen utziko dizudala hitzematen dizut, ados?*

Eta joan egin zen etorri bezala.

Aipatu dudan legez, pozik hartu nuen gonbidapena, hasieran. Erakargarria zen gidariaren kabinan Gerard-ekin bidaiatzearen ideia. Ilusioa egiten zidan. Baina egunak joan, egunak etorri, gonbidapen hark "gero arte" xamur bat baino, "betira arte" latz bat suposatzen zuela konturatu nintzen. Izan ere, hain zaila zen metroan topo egitea... Eta bazekien hori Gerard-ek. Horixe zen nire susmoa eta nire beldurra: ez ote zuen gonbidapena egin, hori horrela zela zekiela? Eta metroko lineek osatzen zuten sare erraldoi hartan, hantxe egongo zela jakin, eta berarekin ez gurutzatzeak egiten zidan min gehien.

Lehenengo egunetan, beharbada, ez horrenbeste. *Ez badugu topo egiten, berdin dio*, esaten nion neure buruari. Ez nion kontuari inportantzia gehiegi eman nahi. Baina egunak pasa ahala, geroz eta urduriago jartzen hasi nintzen, eta ulertu nuen alferrik ari nintzela nire burua engainatzen, benetan desio nuela Gerard-ekin topo egitea.

Hamalau linea desberdin, linea bakoitzean bi norabide, eta norabide berdinean berrogei, hirurogei, ehun tren. Hiru, lau edo bost minuturo tren ezberdin bat estazio bakoitzean. Eta egunero, etxetik atera, eta Porte d'Ivry metro-geltokira iristean, esperantza berdina, eskaera bera patuari: geltokira iristear zegoen trena, nik hartu behar nuena, izan zedila mesedez Gerard-ek gidatzen zuen hura. Eta trena tuneletik ateratzen sentitzen nuenean, estaziora iristen sentitzen nuenean, kilima bera beti sabel aldean, dirdira iguala begietan, izerdi hotz bera eskumuturretan. Eta kabinako pertsona ezagutzen ez nuenean. Kabinako pertsona ezagutzen ez nuenean. Kabinako pertsona ezagutzen ez nuenean...

Askotan hantxe gelditzen nintzen, geltokian. Denak sartzen ziren trenera, ziztu bizian, denborarik galdu gabe, badaezpada. Beti agertzen zen, baita ere, norbait, azken unean eta korrika, eta bozinak jo ondoren piiiiaiiiiiiii atea ixten ari zirela sartzen zen. Eta ni hantxe geratzen nintzen, kanpoan. Metroko atea nola nire muturren aurrean ixten ziren ikusten nuen bitartean. Gero, barruan zegoen jendeak harriduraz begiratzen ninduen. Harriduraz, harridura, harridur, harrid, harri, harr, har, ha, h, ... Trena tunelean desagertzen zen arte. Eta ni bakarrik geratzen nintzen geltokian. Eskaleren bat ere bai, batzuetan. Baina denbora gutxirako izaten zen, zeren laster hasten zen jende gehiago etortzen. Hurrengo trenean igoko zirenak denak.

Eta garai batean nirea ez zen izan inoiz *ztorren* trena, *hurrengoa* baizik. Beti hurrengoa. Eta, azkenean, lanera beranduegi ez iristearren, bederatzigarren trena-edo hartzen nuen, beste erremediorik geratzen ez zitzaidalako.

Hala eta guztiz ere, baziren egunak orduak eta orduak ematen nituena geltoki berdin batean. Asteburuetan, batez ere, baina baita, badaezpada, astegunen batean ere, nire Boutique-an gaixo jarri nintzela esan eta gero. Eta ikaragarri sufritzen nuen tuneletik tren bat ateratzera zihoala nabaritzen nuen bakoitzean, zeren adi egon behar nuen, adi egon behar nuen, Gerard baldin bazen berarekin igotzeko, eta ez zen inoiz bera etortzen, eta, halere, han egoten nintzen Porte d'Ivry-n batez ere, baina Chatelet-en ere bai gero, edo ausaz aukeratutako beste edozein

geltokitan, Villiers-en igual, edo Garibaldi-n, edo Javel-en, geltoki batean, edo bestean, nire trenaren zain. Nire gidariaren zain.

Eta horrela pasa zitzaizkidan egunak, eta hilabete osoak ere. Estazioz estazio. Bagoirik bagoi. Trenez tren. Eta itxaroten, itxaropena ere galdu nuen, azkenerako. Bista ere makaldu zitzaidan, kabina barruan zegoena, Gerard izango ote zen asmatu nahian hainbeste aldiz ibiltzeagatik. Eta izenak, estazio-izenak besterik ez nituen buruan bueltaka.

Belleville, Goncourt, République, Gerard, Rambuteau.

Caulaincourt, Abbesses, Pigalle, Gerard, Saint-Georges.

Sèvres Babylone, Vaneu, Duroc, Gerard, Ségur.

Gentilly, Laplace, Gerard.

Jasmin, Ranelagh, Gerard.

Gerard, Gerard, Gerard.

Eta etsi egin nuen azkenean. Utzi. Eta erabaki nuen metroa soilik lanerako hartuko nuela. Lanera ere autobusez joatea pentsatu nuen, baina bai prezioz, bai kokalekuz eta baita erosotasunez ere, hobeto zetorkidan metroa. Edo horrela engainatu nuen, behintzat, nire burua, patuari —oraindak— esperantza txiki bat eskainiz.

Eta Gerard ezagutu eta zazpi bat hilabete beranduago, ostegun goiz batez lanera nindoala, mirakulua gertatu zen.

Metroaren zain nengoen Porte d'Ivry-n, egunero bezala. Zutik jarri nintzen andenean, trenaren hotsa entzutearekin batera, eta abiada bizian nire paretik pasa zenean, iruditu zitzaidan, iruditu zitzaidan Gerard ikustea kabinan. Baina hain azkarra izan zen guztia... Ezetz esan nion neure buruari, nire irudipenak izango zirela, eta bagoira sartzen hasi nintzen trenea gelditu zenean, jende andanarekin batera. Eta sartzen ari nintzela, *MARIE, MARIE!* entzun nuen urrutian, oihartzuna. Eta andenean geratu nintzen, bagoira sartu gabe. Mundu guztia barrura sartu zen, eta, orduan, han, trenaren aurrealdean, besoarekin keinuak egiten ari zitzaidan uniformedun gizon bat ikusi nuen. Gerard zen. *AZKAR, MARIE, AZKAR! ZATOZ!*, esan zidan, *VIENS ICI!*. Eta korrika gerturatu nintzen berarengana. Jada kabinaren barruan, bozina jo, eta martxan jarri zuen trenea.

Gidariaren kabinan egin nuen Chatelet-erainoko bide osoa. Han, lineaz aldatzen bainuen, lanera joateko. Hamabi estazio izan ziren. Hogeita zortzi minutu.

Gerard pozten zen ni berriz ikusteaz. *Pozten naiz, Marie*, esan zidan builaka, ez baitzegoen entzuterik, bestela. *Kostata, baina topo egin dugu azkenean*. Gero, sekretutxo bat kontatu zidan. *Sekretutxo bat kontatuko dizut, Marie. Zu ikusteko irrikatzen nengoen, eta txanda aldatzeko eskatu nion lagun bati. Bestela, linea hau egitea ez litzaidake otsailera arte tokatuko*. Eta irribarre egin zuen. Irribarre egin nuen nik ere. Gero, hurrengo zitarako ordua eta lekua ezartzea komenigarria litzatekeela gaineratu zuen barrez, *bestela, beste zazpi hilabetetan ez dugu elkar ikusiko...* Eta Montparnasse-n geratu ginen Edgar Quinet boulevard-ak Rue Delamure-rekin egiten duen bidegurutzean.

Chatelet-en agurtu ginen, *datarren igandera arte!*

Bestalde, gidariaren kabinan joatea ez zen espero bezain zirrargarria izan. Beltza ikusten zen guztia. Beltza. Beltza. Beltza. Beltza. Beltza. Beltza. Beltza. Beltza. Eta konturatzeko, hurrengo estaziora iristen zinen: jendea, jendea, jendea, jendea, jendea, jendea, jendea. Frenatu, zain egon denak sartu arte, bozina jo, eta martxan jartzen zuen berriz tren. Eta beltza, beltza, beltza, beltza, beltza, beltza, beltza, beltza...

III

Montparnasse-ko zita baino hilabete beranduago izan zen. Ondozik sentitu nintzen lanetik bueltan, metroan nindoala. Gonbito-larria neukan. Baina neka-neka eginda nindoan, eta ez neukan geltokiren batean geratzeko gogorik. Burua zango artean sartu, eta agoantatzea erabaki nuen.

Oso gogorra izan zen. Noizean behin, listua botatzen nuen lurrera, eta gorakotik pixka bat ere ihesi zitzaidan. Ez zen inor nire alboan esertzera ausartzen, eta inguruan nituenak ere ahalik eta urrutien jartzen zirela igarri nuen begirada altxatu gabe. Estazio bakoitzean geratu, eta berriz martxan jartzean sufritzen nuen gehien. Chatelet, Pont Marie, Sully Morland... Sully Morlanden denak bota nituen ia-ia. Ez nuen gora begiratzen, baina bizkarrean iltzatuta sumatzen nituen metroan zihoazen ezezagunen begiradak. Buruz jarraitzen nuen metroaren ibilbidea. Jussieu-n egongo gara orain; Place Monge da hurrengoa; Censier Daubenton dator gero; Les Gobelins, Place d'Italie... Hamabigarrenean atera behar nuen, Port d'Ivry-n. Iritsiko ahal da...!

Ohiko hogeita zortzi minutuak tardatuko zituen metroak, baina inoiz baino luzeago egin zitzaizkidan.

Handik zortzi hilabetetara jaio zinen zu, Julia.

IV

Saint-Augustin metro geltokian hartzen nuen etxerako trenea, lanetik atera ostean. Egun hartan nire onetik irtenda iritsi nintzen. Negar batean. Ez zidatela kontratua berrituko esan zidaten Boutique-an, eta erabakiak ez zeukala haurdunaldiarekin zerikusirik, ez pentsatzeko halakorik. Azken boladan erakutsi nuen fundamentu eskasarengatik kontratatu omen zuten beste neska hura, nire orde. Azala izan behar da, gero...

Kristorenak eta bi esan nizkien marru batean. Azken hamabost urteetan ez zutela txortan egin, eta horregatik zeudela erreprimetuta. Zimurrez betetako aurpegi haiei begiratu besterik ez zegoela.

Ez nintzen hobeto sentitu. Eta metro geltokira iritsi nintzenean, guztiarekin bukatzeko gogoia izan nuen. Zer egin behar nuen nik orduan? Nola hazi eta hezi behar nuen nire alaba? Nola lortu behar nituen xoxak? Eta, agian, gehien mintzen ninduen: non lortu behar nuen nik aita bat nire alabarentzat? Non?

Andenean zutik nengoela gogoratzen dut. Trenaren zain. Eta Montparnasse-ko egunarekin oroitu nintzela. Suizidioei buruzko hizketaldi hura, gela hotz hartako pareta zikin haiek, gortina grisak. Suizidioen kontu harekin Gerard-ek zenbat sufritzen zuen gogoratu nuen, baita ere; zein gaizki pasatzen zuen.

Eta trenea entzun nuen, bidean zetorrela. Jendea zutitu egin zen aulkietatik, andenaren ertzerara hurbiltzeko. Eta halako nebulosa batean, erabaki nuen nire buruaz beste egingo nuela hantxe bertan, trenaren oinetara jaurtiaz. Eta gidaria Gerard bera izatea desiratu nuen.

Eta trenea iritsi zenean pauso txiki bat eman nuen aurrera, salto egiteko prest. Baina ez nintzen ausartu. Ez zen Gerard gidaria. Eta hantxe geratu nintzen, zutik, nengoen lekuan bertan, negarrez. Eta piiiiviiiiii bozina jo zuen gidariak —Gerard-en lagun bat, agian— eta alde egin zuen trenak. Bakarrik geratu nintzen geltokian, baina segituan hasi zen berriz betetzen. Hurrengo trenea etortzean prozesua errepikatu nuen. Pausu txiki bat eman nuen eta... —ez zen Gerard gidaria—, ez nintzen gehiago egitera ausartu. Hantxe geratu nintzen, berriz, tente —piiiiviiiiii—, hurrengoaren zain. Eta berriz, eta berriz, eta berriz saiatu nintzen, geroz

eta konbentzimendu gutxiagorekin. Eta hamaikagarren trena iritsi zenean, barrura sartu eta etxerako bidea hartu nuen.

V

Ezin izan nuen aitaxoren bila joan, Julia. Ezin izan nuen joan.

Telefonorik ere ez genuen trukatu Montparnasse-ko egun hartan. Helbiderik ere ez.
Berak ez zuen nahi izan. Eta nik ere ez.

VI

Gaurkoa, egun arraroa izan da. Abuztua izanik normala da Parisen bero egitea, baina gaurkoa gehiegizkoa izan da. Julia guztiz lelotuta ibili da. Pentsa, Sena ertzetik paseatzen ibili gara Pont d'Alexandre inguruko lorategietan, eta, hala ere, bero pasa dugu... Juliak erdi lo igaro du egun guztia, kotxezitoan. Gaixoa. Ito beharrean sentituko zen bero honekin. Uxoei ere ez die kasurik egin...

Gau-partean bai, orduan gustura egon zintezkeen. Baina joan beharra genuen, osaba Ghassan zain geneukan-eta. Pena izan da, orduantxe espabilatu baita Julia. Ze politta zegoen ilunabarreko argiarekin. Jada *ama* deitzen dit...

Eta pentsatzea negu hartan guztia pikutara bidaltzear egon nintzela...

Metroa hartu dugu Place de la Concorde-n. Concorde, Tulleries, Louvre, Rivoli eta azkenik Chatelet. Chatelet-en atera gara, gure lineara aldatzeko. Linea arrox. Zazpigarrena. La Corneuve - Mairie d'Ivry.

Eta Chatelet-en zazpigarren lineari dagokion estazioan gertatu da dena.

Guri zegokigun andenean geunden jada, lurrazpitik nahiko bira eman ondoren. Norabide zuzenean. Estazioan ez zegoen ia inor. Bero honekin jendea etxean geratu da, dirudienez. Juliak txupetea lurrera bota du, eta jasotzera makurtu naiz. Orduantxe iritsi da tren.

Zeharka ikusi dut, Juliari txupetea jasotzen ari bainintzen. Baina ez dut duda izpirik izan. Gerard zen gidaria.

Gelditu egin da tren. Sartu egin da estazioan zegoen jende apurra, baina ni begira geratu naiz trenaren aurrealdera, kotxezitoa esku batekin helduta, txupetea bestean. Parez-pare neukan metroaren ateetako bat.

Ziur naiz ikusi egin nauela. Ezagutu egin nauela. Ez baitu tren abiarazteko bozina jo berehalakoan.

Ispilutik begiratu nau. Sentitu egin dut. Niri begira sentitu dut. Harrituta, agian. Eta zain geratu da segundo luze batzuetan, ni noiz sartuko-edo. Ez dut sartzeko keinurik egin, ordea. Berak begiratzen zuen ispilu berdinerara finko mantendu dut soa. Urrun neukan ispilua, baina iruditu zait haren begietan tinko nuela begirada. Juliak txupetea eskatu dit, baina ezin izan diot kasurik egin. Ezin nintzen mugitu. Segundo batzuk gehiago luzatu da geldialdia. Trenetik, bagoi ezberdinetatik, pare bat pertsona atera dira zer gertatzen den ikustera, harrituta trena oraindik ez delako martxan jarri-edo... Une horretan, mugi nintekeela sentitu dut. Eta txupetea eman diot Juliari. Beste bost bat segundo igaro dira. Beste aukera bat eman dit sartzeko, nik uste. Baina ez naiz nengoen lekutik mugitu. Bozina jo du orduan. Piiiiiiiiiiiiiiiiiii. Korrika sartu dira, zer gertatzen ari zen galdezka ari zirenak, eta handik gutxira, martxan jarri da trena. Poliki hasieran, azkarrago gero. Azkarrago. Azkarrag. Azkarra. Azkarr. Azkar. Azka. Azk. Az. A. Eta estazioko pareta grisa, iragarki ilunen bat geratu zait muturren aurrean.

— Hurrengo hartuko dugu, Julia. Lasai —esan diot alabari.

1491

Ella está en el horizonte —dice Fernando Birri—. Me acerco dos pasos, ella se aleja dos pasos. Camino diez pasos y el horizonte se corre diez pasos más allá. Por mucho que yo camine, nunca la alcanzaré. ¿Para qué sirve la utopía? Para eso sirve: para caminar.

E. Galeano (Ventana sobre la utopía.
Palabras Andantes.)

aitari

ANEYRU

Ibaiak ekarri zuen, egun batean.

Euria bezala etorri zen, abisatu gabe.

Jainkoen opari gisa hartu zuten,

eta Aneyru jarri zioten izena: urak dakarrena.

Eta euretako bat balitz bezala hazi zuten tribuan.

Berehala ohitu zen eguzkia baino gorago heltzen ziren zuhaitzen artean bizitzera. Ehizean ematen zuten eguna, eta ipuinak kontatzen gaua.

Halere, uretara jotzen zuen Aneyruk ahal zuenean, izarrek zerura bezala. Arrainen pare ibiltzen zen ibaian, tribuan beste inork ez zekien moduan. Berezkoa zuen igeri egiteko trebetasuna, eta ibaian behera eta gora, behera eta gora, ibiltzen zen beti, batere kezkarik gabe.

Behin batean, ibaian jolasean ari zela, aingira bat ikusi eta hari jarraika hasi zen. Ibaian behera eta behera egin zuen hari segika, eta konturatu orduko, ezagutzen ez zituen parajeetan ikusi zuen Aneyruk bere burua. Eta itzuli egin zen tribura, ilunabarraren esku beltzetatik ihesi. Arrainak aurrera jarraitu zuen ibaian behera eta behera. Baina nora?, harritu zen Aneyru.

Handik aurrera ibaian behera egiten hasi zen egoskor, behera eta behera aingirek bezala. Arrainak nora zihoazen jakin nahi zuen, ezagutu nahi zuen haiek bezala ibaiaren bukaeran zegoena.

Pasa ziren gauak eta egunak bata bestearen atzetik, ilargi beteak berrogei zeruan. Ezagutu zituen bere bidaietan zuhaitz luzeagoko parajeak, zeru urdinagoak, hegazti koloretsuagoak. Ez zen nahikoa, ordea, esku-hutsik itzultzen baitzen beti, ibaiaren amaieraren arrastorik gabe. Soilik, erantzunik gabeko galdera bat bere gogoan iltzatuta: amaigabea ote ibaia?

Eta geroz eta urrunago iritsi, orduan eta handiagoa zen galdera haren itzala bere gogoan. Eta bukaera bat behar zuela sinistu arren, etsipena sortzen zion saio bakoitzean urrunago iritsiagatik, esku-hutsik itzuli beharrak. Batzuetan, ibai ertzean eseri eta aingirei begira-begira jarritakoan, bezperan igarotako berak zirela iruditzen zitzaion...

Eta egoera horretan —ez aurrera, ez atzera—, zerbait egin beharra zeukala erabaki zuen, eta hala azaldu zien tribukoei ilargirik gabeko gau batean: ez zela bueltatuko esan zien, ez zela bueltatuko ibaiak azkenik zuen ala ez jakin arte. Tribukoek onartu egin zuten Aneyruren erabakia, jakin arren ez zutela berriz ikusiko, ibaia benetan amaigabea izanez gero.

Aneyru abiatu bezperan, festa egin zuten tribuan. Ez ziren jakiak falta izan, ezta edariak ere. Eta biderako koka hostoak, kakaoa, *maní* haziak, txirimoiak eta bestelakoak oparitzera gerturatu ziren Aneyrurengana, tribuko gazteenak eta zaharrenak.

Egunsentira arte luzatu zuten festa, ipuinak kontatuz.

Izan ziren ibaia amaiezina zela kontatzen zuten ipuinak, baita ibaia amaitzen zen leku berean, lurra amaituko zela ziotenak ere. Batzuek ibaiaren bukaeran lainozko paradisua zegoela kontatu zuten eta han zeudela hildakoen arima guztiak; beste batzuek suzko txinpartez betetako infernu bat irudikatu zuten han, deabruen eta jainko gaiztoen gordeleku.

Benetako erantzunaren bila abiatu zen Aneyru, biharamunean.

Hemeretzi ilargi-bete iraun zuen Aneyruren odiseak ibaian behera. Bidean, krokodiloen arerio eta aingiren lagun bilakatu zen; uraren ahaide eta lurraren etsai.

ura ura ura

Aurrera-atzera, ezkerrera-eskuinera, alde batera eta bestera begiratu, eta ura soilik ura ikusi zuenean geratu zen, bat-batean,

ura ura ura

izututa.

Eta atzera egin zuen lehen lurmuturrera iritsi arte. Ziplo geratu zen lurrean. Dardarka. Begiratzera ausartu zenean, ezin zuen sinetsi: zer zen aurrean zeukana? Ertzik gabeko ibaia, mugarik gabeko lakua, begietan ere kabitzen ez zitzaiona, bere handian, txiki sentiarazten zuena. Ezerezaren atzamarretatik ihes egin zuela iruditu zitzaion. Ez ote zen heriotza, laku erraldoi hartan noraezean igerian aritzea izango...

Hiru ilargi-bete oso egon zen laku erraldoi hari begira, liluratuta. Horizontera begira ematen zuen egun osoa. Atsegin zuen han urrutian, bukaera bat egon zitekeela imajinatzea. Gauez, laku erraldoiak sortzen zituen murmurio leunen magalean hartzen zuen loak.

Tribura itzuli zenean, lorez eta kantuz egin zioten ongietorria, eta festa egin zuten, noski, Aneyruren omenez.

Honek gau guztia pasa zuen amaiera ikusten ez zitzaion laku erraldoiari buruz hizketan.

Batzutan bortitza zela esan zuen, bestetan lasaia. Argi-argia zela sarritan, eguzki izpien kolorekoa. Ilun-iluna beste askotan, gaua eta ekaitzaren tankerakoa. Baina gehien harritu zuena, ordea, ezin bereiztea izan omen zen, horizontera begiratu eta ezin bereiztea, han, urrutian, zer zen ura eta zer zerua. Tribukoek begi handiekin begiratzen zioten.

—Amaigabea al da? —galdetu zion Lanpa gazteak.

—Hala dirudi —erantzun zuen Aneyruk.

Egunsentirako lo geratu ziren azkenak, laku erraldoi hark sortzen omen zuen murmurioen eta zurrumurruen doinuekin. <<Belarrira xuxurlatzen ari zaizula dirudi. Kontatzeko asko balu bezala...>>, zioen Aneyruk. Baina ez zuen inork entzun, eta ibai ondora erretiratu zen atsedean hartzera bera ere.

Lasaitu egiten zuen uraren jarioak, ez zuen loak hartu, ordea. Sabelaldean sentitzen zuen hazkura arraro batek ez zion utzi. Ez egun hartan, ezta hurrengo berrogeietan ere.

Zerura begira igaro zituen egun horiek guztiak: aparra ikusten zuen hodeietan, ura eta ura zeru urdinean. Hegan egitea ez ote zen, azken finean, igeri egitea izango, baina han goian.

Eta erabaki egin zuen azkenean: berriz saiatuko zen. Ez zuen horizontearen bestaldean zer zegoen jakin gabe geratu nahi. Eta desagertu egin zitzaion, hor sabelaldeko hazkura arraro hori. Eta lo egin zuen hurrengo berrogei egunetan.

Esnatu zenean, ibaian gora eta behera hasi zen berriz deskantsurik gabe. Bere helburua lortzeko, bai baitzekien asko egin beharko zukeela igerian; asko eta luze, lurrik ukitu gabe.

Eta gogor saiatu zen egun bat bai, eta baita hurrengo ere, Lanpa gazteak egindako galdera erantzun gabe utzi beharrak sortzen zion ikara motibaziotzat hartuta. Baina..., eta benetan amaigabea balitz?

Aneyru joan bezperan, festa egin zuten berriz. Haizea zebilen bazterretan, eta ilargi betea ageri zen zeru izartsuan. Aztoratuta zeuden animalia guztiak. Ez zeuden lasai tribuko kideak ere.

Gazte eta zahar, guztiak mozkortu ziren. Izango zen azken gaua balitz bezala. Ez zen ipuinetarako betarik izan.

Hurrengo goizean,

Aneyru ibaian behera abiatu zenean,

tribuko 3 emakume eta

haien seme-alaba txikiak soilik joan zitzaizkion agurtzera.

Eta hobe horrela.

Ez zuten gehiago ikusi.

MAMA QHOCHA, IPUIN QUECHUARRA

Bazen behin oinez baino igerian errazago egiten zuen haur bat. Ibaian behera eta gora ibili ohi zen, eta urezko azala omen zeukan. Ur azpian hartzen omen zuen arnas, ur gainean bezalatsu.

Behin batean, ibaian behera abiatu zen, gora itzultzeko batere intentziorik gabe. Eta itsasoa deskubritu zuen. Bere tribura itzuli zenean, festa egin zuten hain aurkikuntza zoragarria ospatzeko.

Baina hurrengo egunean alde egin zuen berriz, dagoeneko hain haurra ez zen arrain-gizonak. Itsasoa amaigabea zen ala ez egiaztatu nahi omen zuen.

Berrogei ilargi-bete igaro omen zituen igerian. Eta iritsi omen zen lurra ukitzera. Iritsi omen zen itsasoaz bestaldera. Banana bat jateko astia hartu omen zuen bertan, eta itzuli egin omen zen berehala. Tribukoei kontatu nahi omen zien lortu zuena. Ez zela amaigabea esan nahi omen zien. Itsasoa. Eta han, beste aldean, burdinazko gizon batzuk bizi zirela.

Berrogei eta zazpi ilargi-bete egin zituen bueltan. Haizeak ez baitu inoiz etxerako bidean laguntzen. Eta ibaian gora itzuli zen bere tribua bizi zen tokira iritsi arte. Bertan, ordea, ez zituen bere tribukoak topatu. Ez bere tribukoak, ezta eguzkia baino gorago heltzen ziren zuhaitzak ere. Dena zegoen suntsitua, eta, inguruan, burdinazko gizonak besterik ez ziren ageri. Itsasoaz bestalde ikusitako berberak. Beldurtuta, ez ote zen alde zahastu pentsatu zuen arrain-gizonak. Eta ibaian murgildu zen berehala itsasoaz bestaldera joateko asmoarekin.

Ordudanik, erotuta omen dabil batera eta bestera, burdinazko gizonengandik ihesi.

BETTY BOOP-EN TERAPIA

Gogoratzen ez dudan leku batean gertatu zen dena. Gogoratu nahi ez dudan leku batean, hobeto esanda. Han, Ingalaterrako herri galdu batean.

Urteak ziren kongresu batera ez nindoala, eta aukera egokia iruditu zitzaidan Ingalaterrako mendebaldeko unibertsitate hark antolatutako hura, ideiak ordenan jarri, eta nire buruari —nire paranoiei— tregua txiki bat emateko. Bide batez, jende berria ere ezagutu ahal izango nuen, akaso. Izan ere, 6 hilabete pasatxo ziren jada Isabelek utzi ninduenetik, eta negarraren fasea gainditua banuen ere, oraindik orbaina ondo itxi gabe neukan. Hala esaten zidan behintzat psikologoak, eta joateko kanpora gomendatzen zidan behin eta berriz. Ateratzeko Bilbotik. Jende berriarekin erlazionatzeak on egingo zidala. Neuronak haize berriekin oxigenatzea, horixe behar nuela, ezer behar banuen. Berrogei urterekin bizitza osoa neukala aurretik, eta aprobeztatzeko... Eta, noski, beste inor ez duzunean, psikologoari egiten diozu kasu. Zerbait gaizki dabil, bai, psikologoa denean zure lagunik onena...

Honela ausartu nintzen biologia molekularrari buruzko kongresu hartan izena ematera. Inoiz ez zait biologia gehiegi gustatu, egia esan behar badut. Karrera —zerbait aukeratu behar eta— Isabeli jarraika aukeratu nuen, bera baitzen, orduan, nire motibazio bakarra. Hemezortzi urterekin..., ze beste irizpide? Baita hortik aurrera ere...! Zer egingo zaio, ba, Isabel berak gidatu izan badu nire bizitza osoa, banandu ginen arte. Beno, utzi ninduen arte; izan nadin zintzoa. Bere *erruz* bukatu nuen, beraz, gustuko ez nuen karrera batean, eta gustuko ez dudan lan batean: irakasle unibertsitatean, ikasleen aurrean ridikulua egiten. Eta gaitzerdi, lana dudanean! Biologo batentzat ez dago-eta, gaur egun, non aukeratua...

Kontua da, ausartu egin nintzela. Ausartu egin nintzela habiatik irtetera. Eta bed & breakfast bat hartu nuen unibertsitatetik 15 bat kilometrotara, kostaldean zegoen herri hartan. Herriak turistikoa zirudien, eta kostaldean zegoela eta uztaila zela kontuan izanda, giro pixka bat ere izango zuela pentsatu nuen. Eta unibertsitatetik at egotea, beti da komenigarria, ez baduzu gau guztia kongresuko kideekin igaro nahi, biologia molekularrari buruzko eztabaida *interesgarriak* izanez... Gainera, bertakoekin *erlazionatzeko* aukera ere ez nuen nolanahi galdu nahi.

Izena gogoratu nahi ez dudan herri hartara iritsi nintzenean, ordea, negar egiteko gogoia sartu zitzaidan bat-batean. Egia da ni iritsi nintzen ordua, ez dela egokiena

Ingalaterrako edozein herri ezagutzeko —zortziak ziren—, baina, kontxo!, zerbait gehiago espero nuen gidak *great night-life* aipatzen zion herri hartatik.

Garai batean turistikoa izan, igual izango zen, baina ni joan nintzen urtean... Ni joan nintzen urtean, prestigioa galdutako hiri dekadente bat zirudien... Neguko Benidorm bat. Ez zuen herri turistikoen ponpositatea, eta are gutxiago giroa. Malekoia bai, ederra zeukan. Amaigabea ia. Malekoian zehar, udako t-shirt itsusiak saltzen zituzten pare bat postu zeuden, ixteko irrikatzen; tabernak edo kafetegiak ere baziren batzuk, itsasoko kresalak herdoildutako ate hertsiekin gehienak, hala ere; neoizko argi erdi piztu, erdi itzalitakoez seinalatutako kasino kutre pare bat ere bai, eta irlandarren antzekoak izan nahi zuten 3 bat pub edo. Gainontzeko guztiak bed & breakfast tankerako hostaltxoak ziren, gehien-gehienak itxita. Gainera, arimarik ez zen malekoi guztian. Txakur bat, eta bed & breakfast-era bidean gurutzatu nuen mozkor bat izan ezik. Eguzkiak ere handik lehenbailehen alde egin nahi zuela zirudien.

Ustez erreserbatuta neukan bed & breakfast-era iritsi nintzenean, lehenengo zaplaztekoa jaso nuen: ez zela nire izena inondik agertzen, ez neukala erreserbatuta, eta, are gehiago, ez zeukatela lekurik esan zidaten, herriaren itxurak etxe guztiak barrutik hutsak zeudela iradokitzen bazuen ere. Han ibili behar izan nuen, beraz, malekoi deprimente hartan gora eta behera, itxiak ez zeuden B&B gutxitan ostatu eskatzen. Metro eta erdiko altuera zeukan ganbara batean bukatu nuen, azkenean, gaueko hamaiketan, hankak minberatuta, eta maletaren pisuak eragin zidan bizkarreko minarekin.

Kongresua ez zen gaizki joan. Aspaldian ikusi gabeko kideekin egon nintzen, Biologia Molekularraren azken tendentziei buruzko hitz-aspertutxo aspergarriak egiten, eta ingelesezko hipokresia fina praktikatzen. Eta afarietatik nola ihes egin behar nuen asmatzea izan zen egun haietako abenturarik erakargarriena, azkeneko gaua iritsi zen arte.

Hurrengo egunean hegazkina goiz neukanaren aitzakiarekin erretiratu nintzen kongresutik arratsaldeko zazpiak aldera. Izena gogoratu nahi ez dudan herrira iritsi nintzenean, ostirala izanagatik, lehen eguneko ikuskizun negargarri bera topatu nuen. Haatik, gogor egin nion neure buruari, eta ez nintzela deprimituko sinistarazi nion. Azken gaua zela, eta *pinta* batzuk hartzera aterako nintzela erabaki nuen, herri guztian hori egingo zuen bakarra ni neu izango nintzela jakin banekien ere. Eta horrela iritsi nintzen —zergatik ez aipatu— "The Old Pirate" irlandar moduko tabernara.

"The Old Pirate" taberna malekoian zegoen, noski. Herri guztia zegoen malekoian. "L" moduko barra bat zeukan tabernak. Egurrezko zorua, pare bat mahai, eta billar bat, metalezkoa zirudien txapa batekin tapatuta. Gauean zetorkionarengandik babesteko jarritakoa?, harritu nintzen. Ni sartu nintzenean, bi lagun zeuden; gizonak, biak, eta 50 urtetik gorakoak. Bata, barran eserita, "L"aren alde luzean; eta, bestea, mahaian. Bakoitza bere Guinness *pintarekin*, nola ez. Infinitura begira. Mutu. Musika lasaia entzuten zen, country-a edo.

Barrara gerturatu nintzen, nire Guinness-aren bila. Eta "L"aren alde motzean kokatu nintzen, tente badaezpada (ihes egiteko prest). Ez da inoiz jakiten. Tabernaria bilatu nuen begiekin, nengoen lekutik, baina barran ez zen inor ageri. Orduan, saloon moduko ateei kolpe handi samar bat emanaz, komuna izango zen hartatik atera zen Betty Boop, eskuin eskuan zigarroa zeramala.

Hura izan zen Betty Boop ikusi nuen lehen aldia. Orain —horrenbeste urte pasa dira!—, ez nuke jakingo definitzen orduan sentitu nuena, emakume hark eragin zidan sentimendua. Baina zerbait esatekotan, nazka sentitu nuela esan beharko nuke. Gutxi baino gehiago.

Betty Boop-ek 60 urtetik gora izango zituen, eta, funtsean, hildako bat zirudien. Kaka eta guzti 40 kilora ez zen iritsiko. Hezurretan zegoen andrea. Baina hezurretan egonagatik, ez zen disimulatzen saiatzan. Bi hankak bistan zeramatzan, izterrerraino —hari izterra esatea gehiegitxo baderitzot ere— iristen zitzaizkion bakero moduko galtzak ipurdia estaltzen baitzioten soil-soilean. Bakeroen azpian, sare itxurako galtzerdi beltzak zeuzkala ikus zitekeen. Bota beltzak zituen, eta soinean arrosa koloreko nikia zeraman, begirada lizuneko Betty Boop-en marrazkiarekin. Niki mauka-motza, bi hezur besterik ez ziren besoak erakutsiz; eta pegatua, ia gerriraino erortzen zitzaizkion bular katatonikoak markatuz. Hori bai, esan beharra dago bere alde, zigarroa estiloarekin eusten zuela. 60 urterekin eduki daitekeen itxurarik penagarriena zuen —ez izan zalantzarik—, baina, bai, zigarroa..., zigarroa estiloarekin eusten zekien. Donostiako zinemaldira etorri zen Bette Davis pasa zitzaidan burutik. Gezurra badirudi ere, glamour-a zerien hain itxura tamalgarria erakusten zuen emakume haren mugimenduei. Eta horrek *diva* itxura bat ematen zion. Herria bezala, noizbait

goia jo, eta orain dekadentziarik ilunenean erori bailitzan. Auskalo! Egunen batean kantari famatua edo aktorea ezaguna igual izan zen... Edo prostituta bat, akaso. Nork daki.

Nigana hurbildu zen, eta zerbait esan zidan ingelesez. Ez nion tutik ulertu. Begietara begira geratu zitzaidan nire aurrean. Hortzei erreparatu nien esaldia errepikatu zidanean. Beltzak zituen geratzen zitzaizkion apurrak. Azkenean, besoaz apartatu ninduen, maldizioka, eta "L"aren alde motzeko barraren azpian zegoen tartetik barrura sartu zen, sinesgaitza egin zitzaidan mugimendu arin batez.

Bera zen nire zerbitzaria. Bera zen Betty Boop.

Barra barrutik, lasaiago, ezkerreko besoaz eskuinekoa eutsiz, eta eskuinekoaz zigarroa ahora eramanez —a ze postura, pentsatu nuen—, izena galdetu zidan.

— What's your name, honey?

Zein da zure izena, maittia? Ez nion erantzun, ulertu nion arren. Eta berak ez zela ezer pasatzen esan zuen berekiko, handik pasatzen ziren guztiek ez zeukatela izenik. Hori ere ulertu nion. Eta berari Betty Boop deitzeko, *badakizu, marrazki bizidunetako bezala*, esan zidan bere nikiko marrazkia seinalatuz. Gero, Guinness bat eskaini zidan, *a pint of Guinness?*, besterik ez balu bezala, eta ateratzen hasi zen nire baiezkua itxaron gabe. Ez niola tutik ulertzen pentsatuko zuen.

Animatu egin nintzen, bat-batean. Piztu. Poztu. Ez nengoela hain gaizki pentsatu nuen nirekiko. Okerrago zeudela, adibidez, herri hartako biztanle guztiak. Seguru. Eta okerrago egongo zirela, munduan zehar beste mila eta sei lekutan. Palestinan, adibidez, edo Sierra Leonan, edo Chiapasen. Pribilegiatu bat nintzela, azken finean. Nire arazoak ez zirela arazo pertsonalak besterik, eta nire buruaz errukitzea txorakeria galanta zela. Euforia moduko bat sentitu nuen, eta beste Guinness bat eskatu nion txarro hutsa erakutsiz Betty Boop-i. Nire psikologoak dioenez, besteen penak ikusteak, sarri, on egiten dio norberari. Ondo nekien nik hori, baina ez nuen guztiz sinistu Betty Boop ezagutu nuen arte. Psikologoek horrelako lekuak gomendatu behar lituzkeela otu zitzaidan. Zu baino izorratuago daudenak ikusteak, askotan, zu hain gaizki ez zaudela konturatzeko balio baitu. Psikologoari kontatu behar niola pentsatu nuen.

Guinnes haren ondoren, beste bat etorri zen, eta beste bat gero. Betty Boop-ek nik ezer esan gabe ateratzen zizkidan, aurrekoa oraindik bukatu gabe neukanean. Egia esan, gustura nengoen.

Laugarren edo bosgarren Guinnes-a dastatzen ari nintzela sartu ziren haiek. Ingalaterrakoa bai Guinnessa. Ingalaterrakoak ez dauka Euskal Herrikoarekin zerikusirik. Dentsoagoa da, beltzagoa, zaporetsuagoa. Errazago edaten da. Eta Irlandakoa hobea omen da. Bai. Beno. Laugarren edo bosgarren Guinnes-a dastatzen ari nintzela sartu ziren haiek. Rugby talde bat zirudien hark, bufalo-talde bat. Hamar bat izango ziren. Kantuan sartu ziren, builaka ia, Ingalaterrako ez dakit zein futbol talderen kamisetekin guztiak, atea irekitzean paretari izugarritzko danbatekoa emanaz; batek bai, eta hurrengoak ere bai. Mozkoteak denak, lepo lodi eta motzekoak.

Betty Boop-ek erratza hartu eta denak botako zituela pentsatu nuen une batez, baina gogotsu agurtu zuten elkar. *Zer moduz zaudete, kabroiok?*, esan zien Betty Boop-ek irribarrez. *Egarri!!!!*, erantzun zioten guztiek. Eta Guinnes-ak ateratzen hasi zen Betty Boop, bata bestearen atzetik. Hasieran beldurtu egin banintzen ere, aitortu beharra daukat, gero, gustura hartu nuela giro pixka bat. Izan ere, errespetua ematen zuten horrela, taldean; baina banan-banan hartuta —pentsatu nuen nire burua animatu nahian, biologiako garai bateko printzipiorik oinarritzkoenatarikoa gogoratuz— zein ahulak diren bufalo bakartiak, zein erraz eroriko lirakeen lehoien atzamarretan...

Hori bai, poztu, poztu, benetan poztu, Bonnie & Clyde sartu zirenean poztu nintzen. Bonnie & Clyde edo John Lennon eta Yoko Ono edo Hansel eta Gretel... Nola definitu bikote hura... Neskak kanpai moduko galtzak zeramatzan, baina pegatuak izan ordez, zabal zabalak, txandal baten tankerakoak. Soinean, niki mauka-motz txuri bat. Zilborra... bistan. Eguzkitakoak ere bazeramatzan, taberna hura ilun xamarra zen arren. Sophia Loren-ek eramaten zituenaren tankerakoak: handi-handi horiek. Ilea luze eta beltzarana zeukan, leun-leuna. Eta titi ederrak zeuzkala ere antzematea lortu nuen. Nik, eta baita bufalo-talde osoak ere, elkarri ukalondokoak emanez egin zituzten algarek argi utzi zuten bezala. Mutila, aldiz, ez zetorren bat neskaren estiloarekin. Sandalia eta bakero zaztar batzuekin, alkandora loredun bat, eta olagarro batenak ziruditen eskuak... 29 bat urte bota nizkion. Neskari, 33 bat. Elkarrekin denbora asko egin gabeak ziruditen. Batak bestea auto-stop-ean jaso izan balu bezala. Bezperako parrandan ezagutu izan balira legez.

Dantzan sartu ziren. Neska besoak altxatuta, mutila zilbor paretik eskua sartuz. Zazpi pastilla estasi hartuta ziruditen. Pistaren erdian kokatu ziren zekarten martxarentzat mantsoegia iruditu zitzaidan abesti bat dantzatzen. Tabernako guztiak haiei begira geunden. Bufalo-taldekoak ere isildu zituzten... Neskak besoak altxatuta egiten zuen dantza, gora begira, estasian egongo balitz bezala. Zilborra guztioi erakutsi nahi zigula zirudien. Mutilak neskaren erritmoa jarraitzen zuen, edo saiatzen zen behintzat. Makurtu eta altxatu, makurtu eta altxatu egiten zen, behin eta berriz, neskaren kurba eskuekin markatuz, makurtu eta altxatzen zen bakoitzean. Zirriak egiteko aprobetxatzen zuen dantza, eta neskari ez zitzaiola axola zirudien. Tabernaren erdian ari ziren dantzan, baina euren mugimenduek taberna osoa hartzen zuten; oreka ez zuten ondo finkatuta, agidanez. Une batez, nire Guinness txarroa arriskutan ikusi nuen —hori bakarrik falta zitzaidan!—, ia-ia nire gainera erori baitziren, baina zutik mantentzea lortu zuten. Hirugarren kanta segidan dantzatu ondoren geratu ziren; neska geratu zen, eta berarekin mutila ere bai. Barrara hurbildu ziren, eta bi whisky eskatu zituzten: bi Glen Grant, baina, berehala, dantzan hasi ziren berriz, whiskyak barran utzita. Mutilak lelotuta zirudien, neskaren atzetik... Ni ere ibiliko nintzateke, egia esan behar bada... Hain zen gorputzez lerdena. Titi haiek, zilbor hura, dantza egiteko modu sentsual hura, misterio ukitu bat ematen zioten betaurreko beltz haiek... Nola ez txoratu emakume hura aurrean izanda... Harekin gau bat pasatzeak nire problema guztiak konponduko lituzkeela pentsatu nuen... Bai horixe.

Beste Guinness bat atera zidan Betty Boop-ek. *Thank you*, esan nion. Irribarre beldurgarri batekin erantzun zidan. Beldurgarria, hitzaren zentzu literalenean... Beste irribarre batekin erantzun nion. Zerbait esan zidan. Hau etxearen kontura, ulertu ahal izan nion... Kontxo, kontxo, pentsatu nuen, taberna hau ez da hain txarra izango... Seigarren edo zazpigarren Guinness-a dastatu nuen. Mundiala. Aurrekoak baino hobea iruditu zitzaidan. Hamarrak hogeit gutxiago besterik ez zirela ohartu nintzen. Gaztetan, koadrilan esaten genuena gogoratu nuen —non geratuko ziren Bilboko gau ero haiek, plastikozko lagun haiek?—: *la noche acaba de empezar*... Parrandarako gorputza sartzen ari zitzaidan. Neska lirain harekin zerbait egiteko gauza ikusi nuen neure burua une horretan. Zergatik ez? Tabernan geundenetatik, ni nintzen guapoena, dudarik gabe —zailegia ez zen arren, dena esan behar da—. Eta berarekin etorri zen memelo horrek, berriz, ahaztu beharreko pasarte bateko pertsonaia zirudien, neskak berarekin hartzen zuen jarreragatik, behintzat. Zeren egiten, egiten

uzten zion; baina ez zirudien piperrik inporta zionik. Gogoratzen dut Ingalaterratik guztiz sendatuta itzuliko nintzela pentsatu nuela nirekiko. Nork esango zidan niri hori, hara joateko erabakia hartu nuenean? Nik uste psikologoari ere ez zitzaiola burutik pasa...

Hamarrak jotzeko zirela, Dijeijimi sartu zen: D.J. Jimmy, alegia. Bufalo-taldeak bibaka egin zion harrera. Eta denak batean garrasika hasi ziren: "KEIREIOUKI!, KEIREIOUKI!". Hasieran, D.J. Jimmy-ren gerrako izena-edo izango zela pentsatu banuen ere, berehala konturatu nintzen karaokeaz ari zirela...

D.J. Jimmy-k sabaian zeuden argi urdin-gorri batzuk piztu zituen, ordura arte taberna irlandar bat izan zenari, diskoteka ukitu bat emanaz. Fondoko musika martxoso bat jarri, eta mikrofonoa eskutan, publikoari zuzendu zitzaion D.J.-a.

— Good night, ladies and gentlemen! Here we are again, with another exciting session of Karaoke!!

— Wehaaaaaaaaaaaaa!!! —egin zuten oihu bufalo-taldekoek, Guinness txarroak altxatuz.

Eta D.J. Jimmy-k hizketan jarraitu zuen, karaokeari hasiera ematen zitzaiola-eta, ea nor izango zen lehenengo balientea...

— Those who have come from Liverpool, perhaps? —animatu zituen bufalo-taldekoak, Liverpoolekoak antza.

— Wehaaaaaaaaaaaaa!!! —egin zuten oihu hauek, Guinness txarroak beste behin altxatuz.

Bazirudien ez zela taberna hartara zihoazen lehen aldia... Betty Boop ere gustura zegoela nabari zen, barraren bestaldetik, zigarroa eskuan, irribarrez baitzegoen. Bere irribarre beldurgarri horrekin...

— Come on, Charlie, come on! —animatu zuen Charlie zeritzan bufaloetako bat...

— CHAR-LIE, CHAR-LIE, CHAR-LIE, CHAR-LIE! —hasi ziren oihuka bufalo-taldeko guztiak, denak batera.

Charlie horrek ez zuen erregu asko behar izan mikrofonora gerturatzeko. D.J.-ari bi hitz xuxurlatu, eta eskatutako abestia jarri zion berehala.

Abestiaren lehen notak ezagunak egin zitzaizkidan. Charlie kantatzen hasi zen arte. Ejem. Kantatzen, edo. Bryan Adams-en *Summer of 69* famatua zen, eta kantatu baino, oihukatu egiten zuela zirudien. Oihukatu edo zaunka egin. Nahiko barre egin nuen estanparekin. Charlie marruka; bere aurrean, bufalo-taldeko bi lodikote jauziak eginez, baina oinak lurretik altxa gabe!; bikotea dantzan, deabruak hartuta baileuden, mutila neskari nikia kendu nahian, eta neska estasiak hartuta bezala; bufalo-taldeko gainontzekoak barran Guinness-ak bata bestearen atzetik edanez, eta bere lagun Charlie-ri baino, bikoteari begira, 80 urteko *biejo-berdeak* bailiran; D.J.-a koka arraia bat sartzen lurrean zegoen bafle baten gainean; ni, han, barraren alde motxean geldi-geldi; eta Betty Boop?, Betty Boop barraren bestaldean, noski. Eskenatoki inprobisatura begira bera ere. Irribarrea ahoan, ezkerreko eskuaz eskuinekoa eta eskuinekoaz zigarrotxo eusten. Bere postura klasiko horretan. Begira ari nintzaion, eta ohartu egin zen. Nigan iltzatu zituen begiak, irribarre gaixtoa ezpainetan. Kaladatxo bat eman zion zigarrotxoari. Hezurra besterik ez zen arren, horrela, iluntasunean, ia-ia bere perfila soilik ikus nezakeela, bere zigarroari zerion kearen artean, noizbait oso ederra izana zela pentsatu nuen. Kurba fineko ilehori argal baina lerdena izandakoa izango zela, seguraski. Ez litzaidakeela beraz maitemintzea gehiegi kostako otu zitzaidan, artean gaztea zela. Luxuzko taberna hauetako batean imajinatu nuen kantari gisa, eta nire burua irudikatu nuen baita ikusleen artean, neska ilehori lerdan hari giñoak botatzen, taberna betea egon arren niri bakarrik kantatzen ari zitzaidala baneki bezala. Gero, pisu zikin batean imajinatu nuen: pantyak eta takoizko zapatak jantzi, mesanotxetik dirua hartu eta —*goodbye, darling*— ohe zuloan hozten uzten ninduen. A ze kontrastea, pentsatu nuen; lehenengoa nahiago, aukeran.

Gogoeta horietan nenbilen —begirada lausotua—, iruditu zitzaidanean, Betty Boop-ek giño bat egin zidala. Giño bat: begiradaren lausoa ezabatu eta Betty Boop-en irribarrea aurrez aurre jarri zidan keinu nimiñoa. Begira-begira neukan. Irribarre *harekin*. Burua jiratu nuen segituan, badaezpada, eskenatoki inprobisatu aldera. Azkar joan zitzaizkidan gaztetan izango zen emakume ilehori lerdan haren irudiak... Zirrara hotz batek hartu zidan gorputz guztia. Izerdi izoztu batek bizkarraldea.

Kontzertuak, bitartean, aurrera jarraitzen zuen. *Summer of 69* kantuaren ondoren, *I will survive* oihukatu zuen Charlie-k, eta gero, *It's raining men* famatua birrindu zuen. Baina gustura nengoen koadro haren erdian, anonimo, nire hamaikagarren (hamar gehi bat) Guinness-a eskuan, neskari eskua sartzen ari zitzaion inuzenteari inbidiaz begira. Baina ez nintzen, ez, inbidia zeukan bakarra, antza. Izan ere, hurrengo kantua heldu zenean... Hurrengo kantuarekin hasi zen guztia.

Balada bat izan zen hurrengoa. Ordura arteko erritmoa puskatuz. Eta Charlie-k ere, nolabait, bere *estiloa* alboan utzi, eta —sinestezina dirudien arren— goxo-goxo kantatzeari ekin zion. Sentsualki ere bai, esango nuke: Elvis-en *Love me tender* ezaguna zen.

Batzuetan ez dakizu zergatik, baina kanta batzuk memorian geratzen zaizkizu betirako. Eta, batzuetan, pertsona bati lotuta geratzen zaizu kanta hori. Edo egoera bati. Eta, gero, kanta hori entzuten duzun bakoitzean, pertsona hori etortzen zaizu gogora. Edo egoera hori. Kurioso da oso. Niri, gau hartatik aurrera, *Love me tender* abestiak, Elvis-ek berak, taberna hura gogorarazten dit; bikote hura; Betty Boop...

Hankak lurretik altxa gabe jauziak egiten aritu ziren bi lodikoteak barrara itzuli ziren: baladak ez zituzten gustuko. Pistaren erdian bikotea bakarrik geratu zen, elkarri lepotik helduta, pega-pega eginda dantzan. Taberna guztia begira zuten. Mutilak neskari eskua sartu zion nikiaren azpitik. Neskak utzi egin zion. Bularretakorik ez zeramala esango nuke. Mutilak ipurditik heldu zion gogotsu. Neskak nahiko jarrera pasiboa zeukala iruditu zitzaidan: dantzan jarraitzen zuen, baina eskuak mutilaren lepotik mugitu gabe. *Love me tender, love me sweet, ...*

D.J.-ak beste arraia bat koka sartu zuen, zakila galtzetan ondo kokatzen zuen bitartean. Abestia xuxurlatzen ari zela iruditu zitzaidan: *Love me tender, love me sweet, never let me go; you have made my life complete, and I love you so...*

Bufalo-taldekoek —euren Guinnessak eskuan zituztela— begirik kendu gabe jarraitzen zuten eszena hain *erromantikoa*. Isilik zirauten lerdea zeriela...

Halako batean, mutilak neska ipurditik heldu eta airera altxa zuen. Neskaren zangoek mutilaren gerria helduta zeukaten, eskuek lepoa. Postura horretan zeudela, neska gora eta

behera ekartzen hasi zen mutila. Gora eta behera, gora eta behera, txortan ari bailiran. Berotu egin nintzen. Musikaren erritmoan ekartzen zuen neska gora eta behera, bere zakil handituaren aurka seguruenik. Kabroi halakoa. Nik ere irten beharrean sumatu nuen neurea. Momentu hartantxe, hartu, eta barraren gainean egingo nion nik neska hari, egin beharrekoa. Erori egin ziren ia. Ezgauza baitzen, oso, mutila. Neska airean eusteko ere ez. Izerditan barrara hurbildu zen. Neskak dantzan jarraitu zuen, eskuak gora, zilborra bistan.

Hura izan zen nire aukera. Baina ez nuen aprobetxatzen jakin. Ez nintzen atrebitu. Barran gelditu nintzen, koldar, seguru, anonimo.

Mutila Guinness-arekin itzuli zen neskarengana. Gerritik heldu zuen, eta edaten eman zion neskak dantzan jarraitzen zuen bitartean. Erdia kolkotik erori zitzaion neskari. Nikiaren gainera. Ez zeraman bularretakorik, ez. Titimutur ederrak zeuzkan, alajaina! Mutilak horzka egin zion titietan, ipurdia ukitzen zion bitartean. Musua bilatu zion, baina burua apartatu zuen neskak. Nire aukera galdu izana madarikatu nuen. Nikiaren azpian sartu zuen burua. Guinness kondarrak miazkatzen imajinatu nuen. Burua atera zuen arnas bila. Eskuez titiak laztandu zizkion. Bere zakilera hurbildu zuen neskaren pelbisa. Eta igurtzi egin zuen haren aurka, bortxatzaile aurpegi harekin kantatzen zion bitartean: *love me tender, love me true, all my dreams fulfill, for my darlin' I love you, and I always will...* Maite zaitut, maite zaitut... Zakila irten beharrean duzunean, errez esaten dira hitzok... Kabroi zikin hori. Nik ere *maitatuko* nuen gustura...

Bufalo-taldekoak ere gauza bera pentsatzen ari zirela sumatu nuen, jartzen zituzten aurpegiengatik. D.J.-a zeharo jota antzeman ahal izan nuen ordurako. Baflearen gainean eserita, zigarrotxo bat eskuan, *fuck me tender, fuck me sweet*, kantatzen ari zela iruditu zitzaidan...

Orduan, mutilak neska ipurditik heldu, eta gora altxa zuen berriz. Igurtzi bortitzagoen bila, seguraski. Atera beharrean izango zuen-eta bere *maitasunaren hazia...* Gora eta behera mugitu zuen, kantuaren erritmo guztiak, harrezkero, alde batera utzita. Sexuak markatzen zion erritmora. Golpe bortitzak eman zituen, hortzak estututa, gogotsu. Igurtziz zakila neskaren aurka. Igurtziz gorputza gorputzaren aurka. Igurtziz izerdia Guinness isuriaren aurka. Bitartean, neska irribarrez zegoela iruditzen zitzaidan. Irribarrez baino, barrez ari zela esango

nuke, akaso. Gora eta behera ibiltzeak grazia egingo balio bezala. Zaldiko-maldiko jolasgarria... Nik emango nioke, bai, zaldiko eta maldiko eta...

Eszena arraro haren aurrean, harrituta egon behar nukeela pentsatzen dut orain. Baina uste dut, zainetan neukan Guinness mordo hark —irakiten sentitzen nuen odolarekin batera— ez zidala pentsatzen uzten. Ez diot beste esplikaziorik ematen.

Kontua da, harritu orde, barraren egurra bilatu nuela nik ere intuitiboki, nire desira menderaezinei jarraika. Gauza bera egiteko: nire zakila barraren aurka igurzteko. Borborka neukan odolari gustu eman nahi nion. Baina ez neukan barrarik gerri aldetik behera, hura baitzen Betty Boop-ek barraren barnealdera sartzeko erabiltzen zuen barraren zatia. Hori ez zen problema izan, dena dela: eskua poltsikoan sartu, eta zakila bilatu nuen eskuarekin disimulu handirik gabe.

Eta zakilari laztantxoak egiten ari nintzela, mutilak neska gora eta behera, gora eta behera nola mugitzen zuen begira, bat-batean, gora eta behera, gora eta behera, eta oreka galdu, eta lurrera erori ziren biak. DANBA!

Isilunea egin zen.

Musika bakarrik entzuten zen, suabe-suabe. Murmuriorik ez, hitzik ez, eztulik ez. Mugimendu txikienak eragin zezakeen soinurik ere ez. Musika bakar-bakarrik, suabe-suabe: *love me tender, love me long, take me to your heart...*

Taberna guztia haiei begira. Eta isilunea.

Mutila neskaren gainean, geldi. Neska —azpian— mugitu ere egin gabe.

Txarrena pentsatu nuen une batez.

Baina laster joan zitzaizkidan kezka guztiak: neskaren algarak entzun nituenean. Taberna osora barreiatu ziren bere barre-algarak, musikaz lagunduriko isiltasun hura hautsiz. Musikaren gainetik entzun zitezkeen algarak. Algarak eta algarak. Gelditu ezin balu bezala.

Eta murmurioak bueltatu ziren, txarroak barran uztean egurraren kontra egiten duten soinu hori, eztulak, noizbehinkako barre-algara txikiak,...

Bikoteak, artean, lurrean jarraitzen zuen. Neska algara batean, eta mutila oraindik sustoa pasa ezinda, bere gainean. Besarkatuta biak. Eta, une hartan, lehendabiziko aldiz, mutilari muxu ematen ikusi nuen neska. Eta sinestezina dirudien arren, elkar laztantzen hasi ziren biak, han, lurrean. Eta musutxoak ematen. Eta elkarri arropa kentzen... Eta maitasuna egin behar zutela zirudien. Han, tabernan bertan. Egurrezko zoru haren gainean.

Eta kontatzen ari naiz, eta ez dut ulertzen. Baina horrela izan zen. Eta horrela izanagatik, une horretan ez zitzaidan arraroa egin. Barre eta guzti egin nuela uste dut, bufalo-taldekoek jartzen zituzten aurpegiengatik. Eta, beno. Berriz gogortu zitzaidan zakila. Eta une huraxe izan zen bukaeraren hasiera.

Neska eta mutila lurrean zeudela, bufalo-taldeko 5 lodikote hurbildu zitzaizkien deabruak hartuta bezala, eta mutila neskaren gainetik apartatu zuten bortizki. Konorterik gabe geratu zen, buruarekin mahaiaren kontra hartutako zartakoaren ondorioz. Bitartean, txori txikia bailitzan altxa zuten neska lurretik, eta txapa metalikoaz estalita zegoen billarraren gainean ezarri zuten. Bufaloetako batek besoak heldu zizkion, besteak dagoeneko erdi askatuak zituen galtzak kentzen zizkion bitartean. Orduantxe konturatu nintzen neska guztiz drogatuta zegoenaz: barrez jarraitzen zuen! Kuleroak arrankatu zizkieten, eta gainera egin zion salto bufaloetako batek.

Orain harrigarria egiten zaidan arren, ez nuen hatzik mugitu. Aitzitik, eskuaz zakila igurzteari ekin nion, geroz eta gogotsuago. Neska hanka-zabalik ikusteak are gehiago berotu ninduen. Posible ote! Eta zakila igurzten ari nintzela, bat-batean, esku batek nirea apartatu zuen hor behealdean. Sustoa eta guzti hartu nuen hasieran, baina segituan ohartu nintzen Betty Boop zela barraren bestaldetik, han zegoen tartetxoa ondo baino hobeto aprobetxatuz. Ezer esateko astirik gabe, kremailera ireki zidan, eta zakila laztandu, poliki-poliki. Gero, galtzontziloetako zulotik zakila atera —kostata, noski—, eta zupatzen hasi zitzaidan. Zupatzen, miazkatzen, zurrupatzen. Nire zakila.

Horrela esanda, sinesgaitza dirudi. Badakit. Baina horrela izan zen. Inoiz inon ikusi dudana emakume zatarrena zen Betty Boop, zin dagit. Zatarra, itsusia, nardagarria,

nazkagarria, higuin garria. Serio. Baina ia hortzik ez izateak... Ze esango dizuet, ba. Esperientzia ere igartzen zitzaien. Eskarmentua ere bai. Benetan. Eta ni, barran ezarrita, neska nola bortxatzen zuten begira, eta burutik pasa zitzaidan gauza bakarra —ez duzue sinetsiko—, ea norbaitek ikus ziezagukeen izan zen... Eta argi zegoen ezetz, neure gorputzak tapatzen baitzuen Betty Boop —eta egiten ari zitzaidana— tabernako beste guztien begiradapeetatik. Eta, gainera, zer axola zion? Nori axola zion une hartan?

Zaila da gogoratzea, zer izan zen aurrena eta zer gero, zein izan zen gertaeren sekuentzia edo ordena, baina ziur esan dezaket oso azkar gertatu zela guztia. Eta iruditzen zait, neskari galtzak jaitsi, kuleroak arrankatu, eta erraldoi hura bere gainean kokatu zen unea, bat datorrela denboran, Betty Boop-ek nire zakila ahoan hartu zuen momentuarekin. Izan ere, barrez gogoratzen dut neska une horretan. Ez une horretatik aurrera, ordea. Zeren bufaloa aurrera eta atzera hasi zitzaionean —*Love me tender, love me sweet*—, oihuka hasi zen neska, marruka bere mutil-lagunaren izena: PETER!, PETER! Bat-batean, ze egoeratan zegoen konturatu izan balitz bezala. Hartuak izango zituen droga guztien efektua supituki joan izan bailitzaion. Peter-ek, ordea, lurrean jarraitzen zuen, konorterik gabe.

Nik —eszena hari begira, eta edozein unetan isuri beharrean— hurrengo izatea desiratu nuen. Aitor dut. Neska haren izterretan egon nahi nuen. Haren bularrak gozatu. Haren suarekin kiskali. Eta nola bortxatzen zuten ikusteak, are gehiago berotu ninduela esan beharra daukat, horrek, orain, aski lotsatzen nauen arren.

Ez dakit noiz izan zen zehazki. Baina, bat-batean, hor barruan mekanismoren batek klik egin balio legez —esnatu!—, konortea berreskuratu zuen Peter-ek. Gogoratzen dut sumina ikusi nuela bere begietan, gorrotoa, mendeku egarria. Jada ez ziren neskaren oihuak entzuten, negar bihurtuak ziren ordurako. Amorruzko malkoak erortzen zitzaizkion masailetik. Peter-ek, orduan, inguruan aurkitu zuen botila bat mahaiaren kontra txikitu, eta bizkarrean iltzatu zion neskaren gainean zegoenari.

Inguruko denek pausu bat atzera egin zuten.

Neskaren gainean zegoena tente jarri zen, eskuak zabalik eta oraindik ahaztu ezin dudana harridura aurpegi beldurgarri batekin. Pausu bat eman zuen atzera, bi. Botila

bizkarretik kendu nahian zebilen, baina ez zen iristen. Ez zion inork lagundu. Beste pausu bat eman zuen atzera, besoekin oreka mantendu nahian. Gero, gorputza jiratu zuen poliki, pausu bakoitzean munduaren erraiak dantzan jarriz bezala —lehoiak zauritutako bufaloaren gisan—, eta ziplo erori zen lurrera, buruz behera geratuz. Lehoiak ez al du, beti, taldeko bufalo ahulena harrapatzen?

Isilunea egin zen.

Geldirik geunden guztiok.

Eta korritu egin nintzen.

Barra heldu nuen nire indar guztiarekin. Dardara egin zidan gorputz guztiak. Eta inoiz izan dudan orgasmorik —nola esan— *orgasmoena* izan nuen.

Aaa...

...

Aaaaaa...

...

AAA!!!!

Zoragarria.

Luzea.

Intentsua.

Eta marruak irentsi behar izan nituen, Betty Boop-ek beste gauza bat irentsi izango zuen bezala. Irentsi egin nuen marrua. Ito egin nuen eztarrian.

Dardara batean jartzen naiz, oraindik, gogoratzean.

Eta, bat-batean, guztia martxan jarri zen berriz. Mundua jiraka hasi zen, ostera. Bufalo-taldekoak beren lagunarengana makurtu ziren; D.J.-a handik alde egiten ikusi nuen; eta Peter-ek eta bere neska-lagunak —Bonnie & Clydek, John Lennonek eta Yoko Onok,

Hanselek eta Gretelek— une hura aprobe txatu zuten infernutik ihes egiteko. Korrika atera ziren tabernatik, eta harritu egin zidan —gero guztia ulertu nuen arren— une hartan, Peter, whisky botila bat lapurtzeko nola geratu zen ikusteak.

Eskutik helduta atera ziren The Old Pirate-etik.

Korrika urrunduko zirela pentsatu nuen, baina han aurrean geratu ziren, tabernaren parean. Bufalo-taldekoek, euren laguna mugitzen ez zela ikusirik, nerbioak galdu zituzten. Builaka hasi ziren, mediku bati deitu behar zitzaiola, norbaitek bizkarretik botila kendu beharko liokeela,... Bitartean, tabernaren parean zirauen bikoteak. Ez nuen asmatzen zertan ari ziren. Dena ulertu nuen, ordea, bat-batean. Peter metxero bat ateratzen ikusi nuen ez-dakit-nondik. Gero, su eman zion whisky botilari. Ez galdetu nola. Su eman zion. Eta, segidan, taberna barrura jaurti zuen bortizki. Tabernak zeukan eskaparate tankerakoa hautsi eta barrura erori zen suzko botila. Laster hartu zuen su guztiak, egurrezkoa baitzen ia dena.

Su artetik, korrika alde egiten ikusi nituen Bonnie & Clyde.

Hura izan zen ikusi nituen azken aldia.

Barrukoa, itxura txarra hartzen hasi zen. Jendea urduri jarri zen. Marruak entzun ziren, eztulak kearen eraginez. Arrapaladan atera ginen guztiak, bata besteari bultzaka. Kanpoan jada, bakoitzak bere bidea hartu zuen, sakabanatu egin ginen berehala.

Nik ere ateratzea lortu nuenean, bed & breakfast-erako bidea hartu nuen korrika batean. Eztulka eta erredura batzuekin, arropak belztuta, eta kremailera oraindik itxi gabe, lepoa jiratu nuen, intuitiboki, korrika egiteari utzi gabe. The Old Pirate zertan zen ikusi nahiko nuela pentsatzen dut.

Sutan zegoen taberna.

Sugar izugarriak ateratzen ziren eskaparate hautsitik, eta, une batetik bestera, guztiak eztanda egingo zuela zirudien.

Segundo bat izan zen. Milisegundo bat, igual. Burua jiratzeko behar duzun denbora. Baina milisegundu horretan, tabernaren barruan, Betty Boop ikusi nuela iruditu zitzaidan, sugar eta ke artean. Eta iruditu zitzaidan, sugar artean, lasai zegoela Betty Boop. Iruditu zitzaidan, ni korrika nindoan bezala, Betty Boop zigarro bat erretzen ari zela, sugar eta ke artean. Zigarro bat erretzen, ezkerreko eskuaz eskuinekoa, eta eskuinekoaz zigarroa helduta. Bette Davis bezala.

Hurrengo egunean —bed & breakfast-ean nire bizitzako gaurik luzeena pasa ondoren—, aireportuan —seguruago, jada—, zonaldeko egunkari bat erosi nuen, pixka bat lasaitzea lortu nuenean. Sutearen berri ematen zuen, eta bi pertsona hil zirela bertan zioen. Istriputzat jo zuten.

Denbora asko pasa da ordudanik. Urteak eta urteak.

Halere, artean, askotan gogoratzen naiz gertaera haiekin. Ametsetan esnatzen naiz, sarri, sutetik irten ezinda nabilela. Sugarrek jaten naute, edo keak itotzen.

Beste askotan, aldiz, maindireak bustitzen ditut nahigabe, ohean isurtzen naiz gozo, Bette Davis-ek zakila zurruputzen didala amestu ondoren.

Psikologoak normala dela esaten dit, ez kezkatzeko. Azken finean, han gertatutakoa —izena gogoratu nahi ez dudan herrian gertatutakoa— positiboa izan dela terapiarentzat. Beti ikasten dela zerbait. Onera egin dudala nabarmen, ordutik. Eta berak hala badio, hala izango da. Bera baita profesionala. Baina ez dakit, ez dakit...

WHAT A WONDERFUL WORLD

*I see trees of green, red roses too,
I see them bloom, for me and you.
And I think to myself, **what a wonderful world.**
I see skies of blue and clouds of white,
the bright blessed day, the dark sacred night...
...The colors of the rainbow so pretty in the sky
are also on the faces of people going by.
I see friends shaking hands, saying "how do you do?",
they are really saying I love you.
I hear babies crying, I watch them grow
they'll learn much more than I'll never know...
And I think to myself, **what a wonderful world.***

Louis Armstrong

Bizitzak mugimendu bat egiten zuen: eta lilura egiten zen haren jabe.

Alessandro Baricco (Castelli di rabbia)

Ierari

UDA

Bero zegoen goizeko sei eta erdiak izateko. Sargori, New York-en, uda parteko goiz hartan. Sam-ek, hala ere, soinean zeraman smoking txuria —garbia—, eta baita lepoa estutzen zion pajarita beltza ere. Gerri eta bizkar aldean, lokarri lodi bat zeukan lotuta, eta lokarritik zintzilik, pianoa zeraman arrastaka, Bronx-eko kale beltzetatik. Piano txuria. Kolako piano txuri eta handia.

Sam beltza zen. Eta burusoila.

Pianoa hartz polar bat bezalakoa zen. Suabea.

Sam 40. kalea atzean utzi, eta 42.ean behera abiatu zen.

42.ak 43.arekin egiten zuen bidegurutzean Charlie topatu zuen.

Charlie saltzailea zen. Egoerara moldatzen zen horietakoa. Ez zeukan dendarik, ordea. Berak zioen bezala, kalea zen bere denda. Kalea zen bere "almazena" ere. Eta beti zeukan behar zenuen zerbait.

—Egun on, Sam.

—Egun on, Charlie —Sam-ek geratu gabe itzuli zion agurra.

—Bero dago gaur, e? —Charlie-k albotik zerraion Sam-i, kolako piano txuri eta handi bat bizkarrean ez daramanaren arintasunaz.

—Ez, Charlie, ez. Ez dut Chicago Bulls-en biserarik nahi.

—Eguzkiak gogor joko duela esan dute, gaur, irratian.

—Gero arte, Charlie.

—Gero arte, Sam.

Charlie-k beti eskainiko zizun behar zenuen zerbait.

Sam-ek 42.ean gora jarraitu zuen kolako piano handi eta txuriaren pisua gerri eta bizkarraldean sufrituz.

Goizaren argia ezagutzen ez zuten jatetxe txinatar eta tailandiarrek, ordutegirik ez zeukaten labanderiak, itxuraz saltzeko ezer ez zeukaten komertzio txiki hutsak, autobus

geltoki desertuak eta etxera bueltan zihoazen bi prostituta gurutzatu zituen. 47.eko bidegurutzean, ezkerretara hartu zuen. 300 bat metro gora egin, eta ezkerretara berriz, 51.ean behera.

51.eko 17.ean Chester, Ray eta Gunter topatu zituen egun hartan ere. Pasatzen ez zen denborari begira. Euren ipurdi beltz handientzako lain ez ziren aulkitxo txuri eta txikietan eserita. Sam-ek hiru eskultura zirela pentsatuko zukeen, noizean behin, eskuetan zeukaten zigarroari kaladatxo bat emateko besoa mugituko ez balukete.

—Egun on —esan zien Sam-ek—. Goizeko zigarroa erretzen?

—Beroari aurre egiteko —erantzun zion Chesterrek, ezpainak mugitu ere egin gabe.

Chester, Ray eta Gunterrek begiratu ere ez zioten egin. Nahiko lan bazeukaten zigarroa eustearekin. Sam-ek "gero arte" isil bat bota zuen agur gisa —bere golkorako ia—, eta 51.ean behera abiatu zen.

—Nahi al duk ilea moztea, Sam? Bero zegok gaur-eta, ondo etorriko zaik burua fresko-fresko izatea!!

Marvin-en algarak New York osoan entzun ziren.

Marvin Bronx-eko pelukero ezagunetarikoa zen. 110 kiloko beltz txima-luzea. Zeukan melenatzarra ez zegokion 52 urteko beltz bati. Berak zioen moduan, ordea, pelukeroek euren sekretuak omen dituzte.

—Bero izango duk gaur, Sam, ez badituk hire txima luze horiek moztzen! —esan zion Marvinek, algara artean, Sam-i eguzki izpiek buruan egiten zioten distirari iseka eginez—. Ziur al haiz ez duala ukitu batzuk egiterik nahi?

Marvin kabroi samarra zen. Matematikengatik egin zela pelukero esan ohi zuen, eta hala ziurta zitekeen bere ile-apaindegiko atean zioena irakurriz gero. "Marvin-en ile-apaindegia. Urteko 445 egunetan irekia". Adarra jotzea zen bere lanbidea, ilea moztea baino gehiago. Adarra jotzen ematen baitzituen ile-apaindegia zabalik izaten zuen eguneko 26

orduak. Dena dela, Sam-ek ez zion aintzat hartu, eta irribarre batez erantzun zion bere galderari:

—Gaur ez, Marvin. Presaka nauk-eta.

Eta aurrera egin zuen 51.ean behera, kolako piano txuria arrastaka eramanez, eta geroz eta nabariagoa zen beroari ahal zuen moduan aurre eginaz. Smoking txuriaren azpian zeukan alkandora zuria dagoeneko blai sumatzen bazuen ere, ez zen txaketa kentzeko gelditu, eta ezkerretara hartuz lehenbizi, eta eskuinetara ondoren, 39.aren bukaeran zegoen semaforora iritsi zen. Hortxe, Eddie topatu zuen; izozki saltzailea.

—Hey, Sam, egun on. Hartuko duk izozki bat, noski! Bero honekin!

—Bai, hartuko diat bat.

—Zein zaporetakoa nahi duk; marrubizkoa ala limoizkoa?

Sam-ek duda egin zuen une batez.

—Marrubizko bat emaidak, mesedez.

Eddiek zorte txarra daukanaren aurpegia jarri zuen.

—Um. Limoizkoa hartu beharko duk ba, marrubizkoa bukatu egin zaidak-eta...

—Zer egingo zaiok, ba!

25 zentimoak eman, eta aurrera egin zuen Sam-ek, Eddie agurtu ondoren.

Eta limoizko izozkia eskuan, kolako piano txuri handia arrastaka, txarolezko zapata beltzak zikinduta, smoking txuria izerditan blai, gerria minduta, baina belarritik belarrirako irribarrearekin, Sam, Bronx-eko kale beltzak atzean utziz, Manhattan-eko kale zurietan barneratu zen, Harlem ibaia zeharkatu ondoren.

Sam-ek eskumuturrean ez zeukan ordularian, goizeko zortziak hogeita bost gutxiago ziren. Manhattan-en ez zegoen arimarik..., geldirik. Auto, kamioi, taxi, tranbia, sirena,

bizikleta eta oinezko guztiak presaka zihoazen, alde batetik bestera, eta alderantziz. Eta kaos kaotiko haren barruan, limoizko izozkia janez, lasai-lasai zihoan bakarra Sam zen, bere kolako piano handi eta txuria arrastaka eramanez.

Itsaso zakarrean, olatu erraldoien aurka doan arrantzalea zirudien Sam-ek. Untzia arrastaka daraman arrantzalea.

Bere bidean, banketxe handiak irekitzen ikusi zituen. Baita, itxuraz soilik, beteak ziruditen komertzio erraldoiak ere. Gainezka zeuden metro eta autobus geltokiak gurutzatu zituen. Gauaren argia ezagutzen ez zuten gosari-dendak. Eta lanera zihoazen milaka eta milaka prostituta eta prostituto.

Halakoa zen Manhattan. Putetxe erraldoi bat bezalakoa.

Bi kale ezkerretara hartu, bat gora, eta, azkenean, helmugara iritsi zen Sam: 5th avenue-ra. 76. metro geltokia —New York Public Library— dagoen parera. Pianoa bere betiko txokoan kokatu, txaketa eta pajarita estutu, pianoaren kolaren barruan zeraman aulkitxo txuriaren gainean eseri, eta azken 36 urteetan egunero egin zuen legez, "New York, New York" abestia jo zuen.

Gero, "What a wonderful world" etorriko zen, eta beste hamaika kanturik. Eta "As time goes by" kantatuko zuen bukatzeko, Manhattan-eko azken prostitutak etxera itzultzen ziren orduan.

PIANOA

—Aita, aita! Zer dago maindire zuri horren azpian?

—Zure oparia, seme.

—Benetan?! Zer da?

—Joan eta ikusi.

Sam-ek korrika jaitsi zituen 2. pisutik beherainoko eskailerak eta berebiziko sorpresa hartu zuen maindirea kentzerakoan, azpian topatu zuena ikusita: azken lau urteetan gehien amestu zuen oparia; kolako piano txuri handi bat. Kolako piano txuri handi hura.

Sam-ek 11 urte bete zituen urtea izan zen hura.

Bronx-eko kale beltzetan, Afrikako lurretan galduta zebilen hartz polar erraldoi bat zirudien piano txuri hark.

Bezperan, Sam-en aitak eta osabak, garagardo baten itzaletara, Sam-en amari, pianoa nondik eta nola ekarri zuten kontatzen zioten, algara artean, Sam ohera bidali ostean.

—Eta gogoratzen al haiz pianoaren teklak probatzen hasi ginenean? —zioen Sam-en aitak—. *"Do, re, mi, fa, sol, la. La? Non dago 'la' nota?"* esan zionan anaiak! Eta noski, dendariaren semea zur eta lur! —Sam-en aita barrez lehertzen ari zen, malkoak ere zerizkiola, eta bere anaia eta emaztea ere kutsatu zituen ordurako—. *"'La' nota falta zaio piano honi!"* esaten zionan honek bizitza osoa pianoak konpontzen ihardun duen baten ziurtasunarekin —anaia seinalatu zuen Sam-en aitak, beste besoarekin, tripak ez botatzearren, sabela eusten zuen bitartean.

—Ikustekoa zunan gizajo harren aurpegia! Aita etor zedin irrikatzen zegonan!

—Di-dau egin geninan, ordea, dena. *"Piano hau konpondu beharra dago!"* esan zionan anaiak dendariaren semeari eta, gero: *"Lehenbailehen, gainera! Non ikusi da 'la' notarik gabeko pianorik!"*.

Barrez lehertu ziren hirurak.

—Eta bion artean pianoa hartu, eta gure buzo urdin eta guzti, kalera atera geninan —lortu zuen esatea Sam-en aitak algara artean—. Gainontzekoa erraza izan zunan, ondo prestatuta baikeneukan guztia. Kamioia eta polearekin, 5 minututan desagertu gintunan denda aurretik. Dendaria, oraindik, eguneroko meriendatxoa bukatzen ariko zunan. Semea, berriz, aho bete hertz geratu zunan dendaren aurrean.

—*"Astebetean bueltan ekarriko dizugu, konponduta!"* oihukatu genionan kamioitik, ziztu bizian alde egin aurretik.

—*"Ez dauka presarik"* esatea bakarrik falta izan zitzaionan gizajoari!

Sam ere esnatu zuten algarak Bronx osoan entzun ziren ia. Eta sarritan entzun ohi izaten ziren, Sam eta bere familia afari baterako elkartzen ziren bakoitzean, istorio hau kontatzen baitzuten aldioro.

UDAZKENA

Haizetsua atera zuen eguna. Haizetsua eta grisa. Sam-ek smoking txuria —garbia— zeraman soinean, eta baita lepoa estutzen zion pajarita beltza ere. Gerri eta bizkar aldean, lokarri lodi bat zeukan lotuta, eta lokarritik zintzilik, pianoa zeraman arrastaka, Bronx-eko kale beltzetatik. Hartz polar bat bezalakoa zen piano zuri eta handia. Suabea.

40. kalea atzean utzi, eta 42.ean behera abiatu zen.

42.ak 43.arekin egiten zuen bidegurutzean Charlie topatu zuen.

—Egun on, Sam.

—Egun on, Charlie —Sam-ek geratu gabe itzuli zion agurra.

—Haize alua, e? —Charlie-k albotik zerraion Sam-i, kolako piano txuri eta handi bat bizkarrean ez daramanaren arintasunaz—. Hezurretaraino sartzen den horietakoa.

—Ez, Charlie, ez. Ez diat ezer nahi.

—Plastikozko zira hauek babestu egingo haute haizetik.

—Ez nagok hotzak, Charlie.

—Frente hotz bat omen zetorrek...

—Gero arte, Charlie.

—Gero arte, Sam.

Charlie-k beti eskainiko zizun behar zenuen zerbait.

Sam-ek 42.ean gora jarraitu zuen kolako piano handi eta txuriaren pisua gerri eta bizkarraldean sufrituz.

Goizaren argia ezagutzen ez zuten jatetxe txinatar eta tailandiarrek, ordutegirik ez zeukaten labanderiak, itxuraz saltzeko ezer ez zeukaten komertzio txiki hutsak, autobus geltoki desertuak eta etxera bueltan zihoazen hiru prostituta eta mozkor bat gurutzatu zituen.

51.eko 17.ean Chester, Ray eta Gunter topatu zituen egun hartan ere. Pasatzen ez zen denborari begira. Euren ipurdi beltz handientzako lain ez ziren aulkitxo txuri eta txikietan eserita. Sam-ek hiru eskultura zirela pentsatuko zukeen, noizean behin, eskuetan zeukaten zigarroari kaladatxo bat emateko besoa mugituko ez balukete.

—Egun on —esan zien Sam-ek—. Goizeko zigarroa erretzen?

—Haizeari aurre egiteko —erantzun zion Chesterrek, ezpainak mugitu ere egin gabe.

Chester, Ray eta Gunterrek begiratu ere ez zioten egin. Nahiko lan bazeukaten zigarroa eustearekin. Sam-ek "gero arte" isil bat bota zuen agur gisa —bere golkorako ia—, eta 51.ean behera abiatu zen.

—Nahi al duk ilea moztea, Sam? Haizeak orrazkera hondatuko dik, bestela!

Marvinen algarak New York osoan entzun ziren.

Sam-ek ez zion aintzat hartu, eta irribarre batez erantzun zion:

—Oraindik ez, Marvin. Oraindik, pixka bat gehixeago luzatzen utzi nahi diat.

—Ondo zegok, Sam —berriz Marvin-ek, algara artean—. Abisaidak orduan...

Eta aurrera egin zuen 51.ean behera, kolako piano txuria arrastaka eramanez, lehendik ere nahiko neketsua ez bazen, haizeak are eta neketsuago egiten zuen ibilbidean. Hala ere, Sam ez zen deskantsatzeko geratu, eta ezkerretara hartuz lehenbizi, eta eskuinetara ondoren, 39.aren bukaeran zegoen semaforora iritsi zen. Hortxe, Eddie topatu zuen; izozki saltzailea.

—Hey Sam, egun on. Hartuko duk izozki bat, noski! Goiza goxatzeko, bederen!

—Zein zaporetakoak dauzkak, Eddie?

—Marrubizkoak eta limoizkoak.

Sam-ek duda egin zuen une batez.

—Marrubizko bat emaidak, mesedez.

Eddiek zorte txarra daukanaren aurpegia jarri zuen.

—Limoizkoa hartu beharko duk ba, marrubizkoa bukatu egin zaidak-eta.

Eta limoizko izozkia eskuan, piano txuria arrastaka, txarolezko zapata beltzak zikinduta, smoking txuria izerdituta, gerria minduta, baina belarritik belarrirako irribarrearekin, Sam, Bronx-eko kale beltzak atzean utziz, Manhattan-eko kale zurietan barneratu zen, Harlem ibaia zeharkatu ondoren.

Sam-ek eskumuturrean ez zeukan ordularian, goizeko zortziak hogeita bost gutxiago ziren. Manhattan-en ez zegoen arimarik..., geldirik. Auto, kamioi, taxi, tranbia, sirena, bizikleta eta oinezko guztiak presaka zihoazen, alde batetik bestera, eta alderantziz. Eta kaos kaotiko haren barruan, limoizko izozkia janez, lasai-lasai zihoan bakarra Sam zen, bere kolako piano handi eta txuria arrastaka eramanez.

Haizearen kontra doan txirrindularia zirudien Sam-ek. Gurrupilik gabeko bizikletan, haizearen kontra doan txirrindularia.

Bere bidean, banketxe handiak irekitzen ikusi zituen. Baita, itxuraz soilik, beteak ziruditen komertzio erraldoiak ere. Gainezka zeuden metro eta autobus geltokiak gurutzatu zituen. Gauaren argia ezagutzen ez zuten gosari-dendak. Eta lanera zihoazen milaka eta milaka prostituta eta prostituto.

Halakoa zen Manhattan. Putetxe erraldoi bat bezalakoa.

Bi kale ezkerretara hartu, bat gora, eta, azkenean, helmugara iritsi zen Sam: 5th avenue-ra. 76. metro geltokia —New York Public Library— dagoen parera. Pianoa bere betiko txokoan kokatu, txaketa eta pajarita estutu, pianoaren kolaren barruan zeraman aulkitxo

txuriaren gainean eseri, eta azken 36 urteetan egunero egin zuen legez, "New York, New York" abestia jo zuen.

Gero, "What a wonderful world" etorriko zen, eta beste hamaika kantu. Eta "As time goes by" kantatuko zuen bukatzeko, Manhattan-eko azken prostitutak etxera itzultzen ziren orduan.

SAM

Sam beltza da. Sam burusoila da. Sam itsusi samarra da. Sam zahartzen ari da. Sam-ek sudur lodia dauka. Ezpain haragitsuak. Sam-ek bizkarra minberatuta dauka. Gerria gastatuta. Hankazpiak izorratuak. Sam behartsua da. Doi-doi ateratzen du jateko. Sam-ek ez dauka zainduko duen inor. Sam-ek ez dauka familiarik. Baina Sam-ek kolako piano zuri handi bat dauka. Eta hatz lodi-lodiak. Pianoa jotzeko propio hazi zitzaizkiola diruditen hatz lodiak. Eta Louis Armstrong-i inbidiarik zor ez dion ahotsa. Ahots espiritualala. Eta musikaren erritmoa zainetaraino sartua. Bere aitak zioen bezala, "Beltzok erraietan daramagu erritmoa. Odolean daramagu musika. Horregatik dauzkagu txuriak esku ahurrak: txaloka jaio ginelako." Sam-ek asko estimatzen zuen bere aita. Maite zuen. Eta aintzat hartzen zituen beti bere esanak, bere aholkuak, bere erreguak. Aita aita da. Aita bakarra da. Baina urteak joan, urteak etorri, ez du oraindik ulertu, ez du oraindik ulertzerik lortu, zer demontregatik, nola arraio, oparitu zion aitak KOLAKO piano handi eta PISUTSU hau! Behin oparitzen hasita...

NEGUA

Hotza atera zuen eguna. Elurtuak Bronx-eko kale beltzak. Zurituak. Sam-ek smoking txuria —garbia— zeraman soinean, eta baita lepoa estutzen zion pajarita beltza ere. Gerri eta bizkar aldean, lokarri lodi bat zeukan lotuta, eta lokarritik zintzilik, pianoa zeraman arrastaka. Elurretan ia-ia ikusi ere egiten ez zen piano zuri eta handia.

Sam 40. kalea atzean utzi, eta 42.ean behera abiatu zen.

42.ak 43.arekin egiten zuen bidegurutzean Charlie topatu zuen.

—Egun on, Sam.

—Egun on, Charlie —Sam-ek geratu gabe itzuli zion agurra.

—Hotz lehorra, e? —Charlie-k albotik zerraion Sam-i, eskuak abriguko poltsikoetan sartuta zituela—. Eskuak izoztuak izango dituk...

—Ez, Charlie, ez. Ez diat ezer nahi.

—Artilezko eskularru epel-epel batzuk ekarri zizkidatek, Sam.

—Ez zeukaat sosik, Charlie.

—Hi haizelako 2 dolarretan utziko dizkiat.

—Gero arte, Charlie.

—Dolar bat eta 80 zentimo.

—Gero arte, Charlie.

—Gero arte, Sam.

Charlie-k beti eskainiko zizun behar zenuen zerbait.

Sam-ek 42.ean gora jarraitu zuen kolako piano handi eta txuriaren pisua gerri eta bizkaraldean sufrituz.

Goizaren argia ezagutzen ez zuten jatetxe txinatar eta tailandiarrak, ordutegirik ez zeukaten labanderiak, itxuraz saltzeko ezer ez zeukaten komertzio txiki hutsak, autobus geltoki desertuak eta etxera bueltan zihoan prostituta bat gurutzatu zituen.

51.eko 17.ean Chester, Ray eta Gunter topatu zituen egun hartan ere. Pasatzen ez zen denborari begira. Ari ez zuen elurrari begira. Euren ipurdi beltz handientzako lain ez ziren aulkitxo txuri eta txikietan eserita. Sam-ek izotzezko hiru eskultura zirela pentsatuko zukeen, noizean behin, gorputzetan beroa mantentzearren ikusezinak ziren mugimenduekin, eskuetan zeukaten zigarroari kaladatxo bat emateko, besoa mugituko ez balukete.

—Egun on —esan zien Sam-ek—. Goizeko zigarroa erretzen?

—Hotzari aurre egiteko —erantzun zion Chester-ek, ezpainak mugitu ere egin gabe.

Chester, Ray eta Gunter-ek begiratu ere ez zioten egin. Nahiko lan bazeukaten zigarroa eustearekin. Sam-ek "gero arte" isil bat bota zuen agur gisa —bere golkorako ia—, eta 51.ean behera abiatu zen.

—Ez haiz ba, ilea moztera etorriko??!! Gaur egun txarra duk horretarako, Sam, hotz zegok eta! A!, edo, agian, ileorderen bat nahiko duk hik, hotzetik babesteko edo.

Marvinen algarak New York osoan entzun ziren. Sam-ek ez zion aintzat hartu, eta irribarre batez erantzun zion bere galderari:

—Hartuko nian, bai, gustura. Belarriak berotzeko bederen.

Eta aurrera egin zuen 51.ean behera, kolako piano txuria garraiatzeko, autoek elurretan utzitako arrastoa aprobetxatuz. Ezkerretara hartuz lehenbizi, eta eskuinetara ondoren, 39.aren bukaeran zegoen semaforora iritsi zen, Eddie egon ohi zen horretara, hain zuzen.

—Hey Sam, egun on. Hartuko duk izozki bat, noski! Hotz honekin!

—Erotuta al hago, Eddie?

—Arabiarrek-eta horrela egiten omen diate. Bero dagoenean, te beroa edan; eta hotz dagoenean, berriz, izozkiak jan barra-barra. Gorputzaren erreakzioa bilatzeko-edo. Azalpen zientifikoa eta guzti omen dik.

—Arabian ez zegok-eta izozkirik!

—Egongo ez duk, ba! Ez duk munduan izozkirik ez daukan herrialderik! Esan bestela non den, eta segituan joango nauk ni bertara. Negozio ederra egingo niake!

—Gero arte, Eddie.

—Ziur al haiz Arabian ez dutela izozkirik ezagutzen!? Ez duk, ba, egia izango? Handia al duk Arabia? Jende asko bizi al duk? Saaam? Urruti al dago Arabia?

Sam, piano txuria arrastaka hartuta, txarolezko zapata beltzak elurrez zipriztinduta, gerria minduta, ahotik arnas bero lainotua zeriola, baina belarritik belarrirako irribarrearekin, Bronx-eko kale beltz elurtuak atzean utziz, Manhattan-eko kale zurietan barneratu zen, Harlem ibaia zeharkatu ondoren.

Eskumuturrean ez zeukan ordularian, goizeko zazpi eta erdiak ziren. Neguan azkarrago egin ohi izaten zuen ibilbide osoa. Manhattan-en ez zegoen arimarik..., geldirik. Auto, kamioi, taxi, tranbia, sirena, bizikleta eta oinezko guztiak presaka zihoazen, alde batetik

bestera, eta alderantziz. Eta kaos kaotiko haren barruan, irribarrez eta lasai-lasai zihoan bakarra Sam zen, bere kolako piano handi eta txuria arrastaka eramanez.

Basamortuan gameluari tiraka doan arabiarra zirudien. Elurrezko basamortu jendetsuan, hildako gameluari tiraka.

Bere bidean, banketxe handiak irekitzen ikusi zituen. Baita, itxuraz soilik, beteak ziruditen komertzio erraldoiak ere. Gainezka zeuden metro eta autobus geltokiak gurutzatu zituen. Gauaren argia ezagutzen ez zuten gosari-dendak. Eta lanera zihoazen milaka eta milaka prostituta eta prostituto.

Halakoa zen Manhattan. Putetxe erraldoi bat bezalakoa.

Bi kale ezkerretara hartu, bat gora, eta, azkenean, helmugara iritsi zen Sam: 5th avenue-ra. 76. metro geltokia —New York Public Library— dagoen parera. Pianoa bere betiko txokoan kokatu, txaketa eta pajarita estutu, pianoaren kolaren barruan zeraman aulkitxo txuriaren gainean eseri, eta azken 36 urteetan egunero egin zuen legez, "New York, New York" abestia jo zuen.

Gero, "What a wonderful world" etorriko zen, eta beste hamaika kantu. Eta "As time goes by" kantatuko zuen bukatzeko, Manhattan-eko azken prostitutak etxera itzultzen ziren orduan.

BERA

Pianoari atxikia zegoen Sam. Kontzentratua bere lanean, elur azpian kantari. Horregatik, lehenbizi bere oina ikusi zuen, bere takoizko zapata gorria. Takoizko zapata gorria neguko elur maluta txurien artean, poliki desplazatzen. Kamara geldoan. Eta batzuetan oin bat nahikoa da, takoizko zapata gorri bat nahikoa da, daramanaren edertasuna antzemateko.

Poliki, gorantz egin zuen Sam-en begiradak. Txorkatiletaraino iristen zitzaion beroki txuriak, ordea, ia ikusezina egiten zuen, elur artean. Takoizko zapata gorri haiengatik ez

balitz. Eta gorritz pintaturiko ezpain haiengatik. Ze aurpegia ere azal zuri finekoa zeukan, zurbila izateraino, ia-ia. Eta begiak urdinak ziren arren, gardenak ziruditen, agoantatzen ari zen malkoak, egiten zuen distirarengatik edo.

Zerutik eroritako elur maluta bat gehiago zirudien.

Sam —ondo gogoratzen du— "What a wonderful world" kantua jotzen ari zen. Gogoratzen du ahotsaren tonua pixka bat jaitsi zuela, neska haren aurpegia ikusi zuenean. Eusten ari zen malko hori ikusi zuenean. Hunkitua.

BERA Sam-en aurretik pasatzera zihoan, eta, ondo gogoan dauka, orduan pentsatu zuena: horizontalean mugitzen zen elur maluta bat zirudiela. Azal zuri fineko eta begirada goibel gardeneko elur maluta bat. Elur malutarik suabeena, elur malutarik zuriena. Gainera eroriz gero (plumm), ile guztiak tentetu eta azala hotzikara atsegin batez laztanduko lizukeen elur maluta horietako bat. Beste elur maluta guztien erregina. Eta iruditu zitzaion Sam-i, ez zitzaiola BERARI elur maluta bat bera ere gainera erortzen. Gainontzeko elur maluta guztiek errespetatuko balute bezala, hegan zihoala, suabe-suabe, elur maluta guztien artetik, abesti isil eta goibel bat dantzatuz balioa bezala; "What a wonderful world" ez zen kantu isil eta goibel bat.

Eta justu momentu horretan izan zen, pentsamendu horiek buruan zerabiltzala, une horretantxe, elur maluta zoragarri hura Sam-en paretik pasatzen ari zenean, justu orduan, ez aurrerago, ezta atzerago ere, ez lehenago, ezta beranduago ere, justu mundua zoragarria dela behin eta berriz errepikatzen ari zen unean, "What a wonderful world, what a wonderful world", kantatzen ari zenean, justu orduan izan zen.

Orduan, neska hark, burua jiratu, eta Sam-i begiratu zion.

Eta justu une horretan, eusten ari zen malko lodi bakar hori erori zitzaion masailean behera, Sam-i begira zegoela, mantso-mantso bere paretik pasatzen ari zela, gainontzeko elur maluta guztien artetik. Kasualitateak hala nahi izan zuelako, edo patuak, edo grabitateak. Eta Sam-ek, orduan, azken 36 urteetan egin ez zuen zerbait egin zuen. Inoiz egin ez zuen zerbait egin zuen. Ekaitzik gogorrenak ere, egitera behartu ez zuen zerbait. Poliziarik burugogorrenak egitera behartu ez zuen zerbait, hotzik handienak edo minik jasanezinenak egitera behartu ez

zuen zerbait egin zuen. Neska haren begiratuak eskatu zion zerbait. Hitzik gabe. Begi distiratsu eta garden haiekin bakarrik.

Bat-batean, Sam-ek, une horretantxe, pianoa jotzeari utzi zion.

Eta isiltasuna.

Isiltasuna nagusitu zen Manhattan-eko kale ero haietan. Auto, kamioi, taxi, tranbia, bizikleta eta oinezko guztiak bat-batean geratu izan balira bezala. Denbora, bat-batean, geratu izan balitz bezala.

BERAK, ordea, ez zuen espresioa aldatu. Burua jiratu zuen berriz, aurrealdera, eta oinez jarraitu zuen, elur maluten artean, pixka bat aurreraxeago, isiltasunean desagertu zen arte.

Sam-ek pianoa jaso eta etxerako bidea hartu zuen.

UDABERRIA

Loretsua atera zuen eguna. Ederra. Argia. Distiratsuak Bronx-eko kale beltzak. Sam-ek smoking txuria —dotorea— zeraman soinean, eta lepoan pajarita beltza. Gerri eta bizkar aldean, lokarri lodi bat zeukan lotuta, eta lokarritik zintzilik, pianoa zeraman arrastaka. Zeraman erara, arina zirudien piano zuri eta handia.

Sam 40. kalea atzean utzi, eta 42.ean behera abiatu zen.

42.ak 43.arekin egiten zuen bidegurutzean Charlie topatu zuen.

—Egun on, Sam.

—Egun on, Charlie —Sam-ek geratu gabe itzuli zion agurra.

—A ze eguraldia, e? —Charlie-k albotik zerraion Sam-i.

—Ez dituk ba arrosa batzuk izango niretzat? —aurreratu zitzaion Sam, 36 urteetan lehenbiziko aldiz.

—Arrosa batzuk? Emetuta al hago-edo? Arrosa batzuk? Ze arrosa? Maiteminduta al hago-edo, zer arraio? Arrosa gorriak? Arrosa beltzak? Nolako arrosak, Sam?

—Arrosa gorriak, Charlie. Dozena bat arrosa gorri.

—Kaguen la letxe, Sam. Arrosa gorriak...! Itxaron 5 minutu, ados?

Eta korrika desagertu zen Charlie. Handik 5 minututara, berriz bueltan zen, eskuan dozena bat arrosa gorri zituela.

—Joder, Sam. A ze gauzak eskatzen dituan! To, hemen dituk.

—Zenbat duk?

—Ordainduko didak, lasai.

Charlie-k ezagunei ez zien inoiz momentuan kobratzen. Konfiantza kontua zela zioen. Ohiko bezeroei ematen zien tratu berezia.

Sam-ek 42.ean gora jarraitu zuen kolako piano handi eta txuriari tiraka, eskuan dozena bat arrosa gorri zituela.

Goizaren argi goxoa ezagutzen ez zuten jatetxe txinatar eta tailandiar exotikoak, ordutegiaren menpekotasunik gabe bizi ziren labandaria libreak, irribarreaz aparte saltzeko ezer ez zeukaten komertzio txiki espaziotsoak, autobus geltoki loretsuak eta gau osoan zehar, maitasuna oparitzen ihardun ondoren, etxera bueltan zihoazen bi emakume gurutzatu zituen.

47.eko bidegurutzean, ezkerretara hartu zuen. 300 bat metro gora egin, eta ezkerretara berriz, 51.ean behera.

51.eko 17.ean Chester, Ray eta Gunter topatu zituen egun hartan ere. Pasatzeko presarik ez zeukan denborari begira. Euren ipurdi beltz ederrentzako lain ez ziren aulkitxo txuri eta txikietan eserita. Sam-ek hiru eskultura zirela pentsatuko zukeen, noizean behin, eskuetan zeukaten zigarroari kaladatxo bat emateko besoa mugituko ez balukete. Udaberriaren poza antzeman zitekeen haien begiradetan, hondo hondoan. Hondorago.

—Egun on —esan zien Sam-ek—. Eguraldi ederra, ezta?

—Bua —erantzun zion Chester-ek, ezpainak mugitu ere egin gabe.

Zigarro bat erretzeko zer axola dio ba eguraldiak. Pentsatu zuen Sam-ek berekiko. "Gero arte" isil bat bota —bere golkorako ia—, eta 51.ean behera abiatu zen.

—Aupa Sam! A ze arrosa dotoreak dakarzkian, ezta?! Enteratu nauk maiteminduta hagoela! Zorionak, hi! Bahuen garaia! Hire 55 urterekin ea emazte on bat topatzen duan, beharko duk-eta, zahartzen haizenerako! Lehen Charlie izan duk hemen, eta berak esan zidak, hori, ba, maiteminduta hagoela, dozena bat arrosa enkargatu dizkioala, arrosa gorriak, eta enamoratuta omen hago, eta, gero, guraize batzuk saltzen saiatu duk, eta, esan zioat, hi Charlie, bizi izan naizen 112 urteetan ez diat guraize berririk behar izan, eta ez hadi orain etorri niri adarra jotzera, eta, kontaidak Sam, nor duk bera?

—Inor ez Marvin, inor ez.

Marvin-ek bakarrik hitz egiten jarraitzen zuen, ordea.

—Nola ez dela inor? Ez adarrrik jo hik ere, Sam! Gaur zer duk ADARJOTZEAREN EGUN INTERNAZIONALA edo zer? Zer uste duzue denok, inuxentea naizela-edo? Hemen hator, hi, hire 17 arrosekin, maiteminduta ez hagoela esanez, eta sinestu egin behar diat! Hi, Sam, ez naizela atzo goizekoa, e!

Sam-ek ez entzunarena egin zuen, eta, irribarrez, aurrera segi zuen bere ibilbidean.

51.ean behera egin zuen, pozik, irribarretsu, alai, maiteminduta. Gurutzatzen zen edonori bere poza kutsatu nahian. Dozena bat arrosekin irribarrez paseatzea, zoriontasuna banatzea balitz bezala.

Ezkerretara hartuz lehenbizi, eta eskuinetara ondoren, 39.aren bukaeran zegoen semaforora iritsi zen, Eddie egon ohi zen horretara, hain zuzen.

—Hey Sam, egun on. A ze arrosa politak!

—Eskerrik asko, Eddie.

—Ez horregatik, Sam. Hartuko duk izozki bat, noski! Giro honekin!

—Eskuak okupatuta zeuzkaat, Eddie.

—Bat bai, baina bestea? —erantzun zion Eddie-k, pianoari noizean behin tira egiteko zerabilen eskua seinalatuz—. Marrubizko izozki goxo bat, Sam. Hirezako, bereziki, normala baino handiagoa.

—Benga, bale. Emaidak bat.

—Inporta al zaik limoizkoa hartzea, Sam? Marrubizkoa bukatu egin zaidak lehentxeago.

—Ondo zegok, Eddie. Emaidak limoizkoa. Berdin zaidak-eta.

Sam-ek egun hartan ez zeukan horrelako tontakeria batengatik eztabaidatzeko batere asmorik, eta, beraz, kexurik gabe erosi zuen limoizko izozkia. Eta piano txuria arrastaka, limoizko izozkia esku batean, 12 arrosa bestean eta belarritik belarrirako irribarrearekin, Bronx-eko kale beltz distiratsuak atzean utziz, Manhattan-eko kale zuri koloretsuetan barneratu zen, Harlem ibaia zeharkatu ondoren.

Eskumuturrean ez zeukan ordularian —eta izan balu ere, begiratzeko zaila izango luke—, goizeko bederatzia ziren ia-ia. Inoiz baino gehiago eman zuen bere eguneroko ibilbidea egiten. Manhattan-en ez zegoen arimarik..., geldirik. Auto, kamioi, taxi, tranbia, sirena, bizikleta eta oinezko guztiak dantzan zihoazen, alde batetik bestera, eta alderantziz, denak batera, edo hobeto esanda, bakoitzari zegokion momentuan, melodia idiliko bat osatuz bezala.

Eta Sam-ek kaos zoragarri haren erdian, bere arrosa gorri haiekin eskuan, eta piano handi hari tiraka, amets bateko pertsonaia bat zirudien. Edo pelikula bateko protagonista. Edo ipuin batekoa. Nahastuta, bizitza errealean sartu zen fikziozko pertsonaia.

Bere bidean aurrera egin zuen Sam-ek, umeen aurpegietan erreparatuz, emakumeen begiradak jarraituz, gizonen ahotsak adituz, saltzaileen eztarri lehortuak, behartsuen esku ahurrak, taxi-gidarien begi nekatuak, oinezkoen zapata garbi eta zikinak, kezkatuen kopeta zimurtuak, irribarrez zihoazenen ezpainak eta haserretuen mutur ilunak. Edonorentzat irekita zeuden banketxe handiak ikusi zituen. Baita ametsak saltzen zituzten komertzio erraldoiak ere. Ilusioz gainezka zeuden tranbia eta autobusak gurutzatu zituen. Ilargiaren argi

xarmangarria ezagutzen ez zuten gosari-denda erromantikoak. Eta lanera zihoazen milaka eta milaka amorante.

Halakoa baitzen Manhattan. Maitasunaren tenplu erraldoi bat bezalakoa.

Eta horrela sentitzen zen Sam. Maitasunaren tenplu hartako nagusi. Jainko.

Bi kale ezkerretara hartu, bat gora, eta, azkenean, helmugara iritsi zen Sam: 5th avenue-ra. Pianoa bere betiko txokoan kokatu, txaketa eta pajarita estutu, pianoaren kolaren barruan zeraman aulkitxo txuriaren gainean eseri, eta azken 36 urteetan egunero egin zuen legez, "New York, New York" abestia jo zuen. Gero, "What a wonderful world" etorriko zen, eta beste hamaika kantu. Bere jainkosa noiz pasako zain. Artega. Kantatzean dardara egiten zion ahots hura disimulatu ezinik, irribarre malenkoniatsua zerien begi haiek ireki ezinik, kantuan kontzentratuta, baina erne, takoi hots hura noiz entzungo, perfume hura noiz nabarituko. Azken 2 hilabeteetan horrenbeste zelatatutako usain hori, takoi hots hori. Eta gero, begiak irekiko zituen, BERE hanka luzeak ikusteko lehenbizi, BERE aldakak, BERE gerri estu hura goraxeago, eta BERE silueta osoa ondoren. Azkenerako utziz BERE ezpain eta begiak, BERE masail gorriak, BERE lepo mehe eta zuria, BERE irribarre guria. Eta urtzen nabarituko zuen seguruenik bere barrena Sam-ek, agortzen bere ahotsa, eta xahutzen bere arnasa. Eta ez zuen arnasa berreskuratuko, BERAK dolar hori Sam-en txapelean utziko zuen arte, Sam-i begietara begiratzuz, irribarre egiten zuen bitartean, limoia gozo bihurtuko lukeen irribarre hori, beltza txuri, eguna gau. Egunero egin ohi zuen bezala, Sam 36 urteetan lehenbiziko aldiz isilarazi zuen malko hori isuri zuenetik, egunero.

Eta une horretatik aurrera, Sam-ek indarra berreskuratuko zuen ahotsean, segurtasuna eskuetan, eta ahalik eta ozenen abestuko zituen geratzen zitzaizkion kantuak. Arabian izozkiak saltzen arituko zen Eddiek ere entzuteko moduan.

Baina bukatzeko, egunero ohi zuen bezala, suabe-suabe, "As time goes by" kantatuko zuen, Manhattan-eko azken amoranteak etxera itzultzen ziren orduan, amodioa pribatu bihurtzen den unean.

KRAS

Maitasuna, sarritan, ordea, gozoegia da. Jaten duzun bosgarren pastela bezala. Mozkortu egiten zaitu, txoratu, gaixotu. Eta bukatzen denean hutsik uzten zaitu, barrenik gabe, indarrrik gabe, itzalik gabe. Eta horrelakoetan, hobe da denbora pasatzen uztea, soil-soilean, pasatzen utzi, bat, bi, hiru, segundoak, pasatzen utzi minutu, ordu eta egunak. Edo urteak. Denborak guztia sendatzen baitu. Gehienetan.

Sam-ek ere gauza bera egin zuen takoi hots nahasgarri hura entzun zuen egunetik. Ze aurrekoetan ez bezala, egun hartan, aspalditik ondo ikasia zeukan doinu erritmiko zehatz hori ez zuen jende andanaren artean ondo bereizten jakin. Beste milaka pausoen artean, pianotik burua altxa gabe, egunero hain ederki bereizten zuen soinu hura, egun hartan, nahasia iruditu zitzaion. Takoi haiek beste zapata batzuen ondoan balihoaz bezala. Baina ez zuen begiratu nahi izan. Begiak itxita jarraitu zuen, burua makurtuta, kontzentratua bere lanean. Ebidentzia ukatu nahian bezala. Baina, bat-batean (nahi gabe), perfume hura antzeman zuen, baita ere. Eta beste egunetan bezain garbia ez zela iruditu zitzaion. Perfume hura, lurrin hura, beste norbaitenarekin nahastuta balego bezala. Ez zen kaleko beste usainen bat, perfume haren usainarekin nahastu zela, ez. Perfumearen usaina bera zen diferentea. Lurrin hari zerion usaina, perfume orijinalaren aldaeraren batena bailitzan.

Eta orduan ulertu zuen dena. Itsuak, sendatzean, itsasora begiratu, eta urdina zer koloretakoa den ulertzen duenean bezala.

Eta jarraitzekotan egon zen. Jarraitzekotan pianoari begira, zegokion lanean, ezer gertatu ez balitz bezala. Sinistarazi, bere buruari, nabaritu zuena bere imajinazioak asmatu zerbait zela eta kito. Baina burua altxa zuen, poliki, beldurrez bezala, ikusiko duena gustatuko ez zaiola dakienaren begirada koldar horrekin. Eta ikusi nahi ez zuena ikusi zuen. BERA —beti bezain eder, beti bezain lirain—, eta BERE gerritik helduta, mutil anonimo hura. Irribarretsua biak, elkarri laztanak egiten, eta maiteminduen begirada inozo horrekin.

Badira une batzuk memoriatik ezabatu nahi zenituzkeenak. Kras. Guraizeak hartu eta zure memoria den pelikula horretako fotograma horiek moztu. Kras. Gustuko ez dituzunak. Kras. Besterik gabe. Kras. Gertatu izan ez balira bezala. Kras. Moztu gustuko ez dituzun

pasarteak. Zure bizitza pelikula amerikano hauetako bat bihurtu arte. Arrosa kolorekoa. Zoriontsua soilik. Zoriontsua eta ez besterik. Kras. Bosgarren pastela janez gustura bizitzeko.

BERA mutil harekin pasa zenean, horixe pentsatu zuen Sam-ek. BERA Sam-en aurretik mutil harekin pasa zenean, ez zen geratu Sam-en kapelara txanpona botatzeko. BERARI egun horretan ahaztu egin zitzaion zegokion dolarra botatzea. Ahaztu egin zitzaion Sam-i irribarre egitea. Aurretik pasa zen. Mutil harekin. Gerritik helduta. Zoriontsu. Irribarrez. Eta ez zen oroitu Sam-ez. Sam-ek, ordea, pixka bat aurrerago geratuko zela pentsatu zuen, gogoratuko zela beraz. Eta txanpon bat aterako zuela poltsatik, dolar miserable bat Sam-entzat. Eta eskerrik asko esango ziola gutxienez, "eskerrik asko denagatik" edo horrelako zerbait. Eta Sam-ek irribarre egingo liokeela pentsatu zuen. Irribarre triste bat, baina irribarre bat, eta "ez horregatik" erantzungo liokeela, edo "ez da ezer", edo "polita izan da iraun duen bitartean". Baina BERAK ez zuen buelta eman. Ez zen geratu ere egin. Aurrera jarraitu zuen etorri zen bidetik, betirako desagertu zen arte.

Sam-ek aulkitxo txuria pianoan jaso eta etxerako bidea hartu zuen.

Arrosa gorriak ikusi zuen lehen zakarrontzira bota zituen.

UDAZKENA

Haizetsua atera zuen eguna. Eta euritsua. Tristea. Grisa. Iluna. Sam-en smoking txuriak, euriaren eraginez, zikina zirudien, eta pajarita beltza laxatua zeraman. Gerri eta bizkar aldean, lokarri lodi hari lotuta, pianoa zeraman arrastaka, gainean etxea daraman karakolak bezala: mantso, geldo, astun.

42.ak 43.arekin egiten zuen bidegurutzean Charlie aurkitu zuen, aterki baten babesera. Charlie-k ez zion egun on simple bat ere esan. Besterik gabe, aterki bat eskaini zion Sam-i, amultsuki, eta euriarengatik edo Sam-i zor zion errespetuagatik, ia entzunezina izan zen esaldi bat gaineratu zuen:

—Euritik babesteko, Sam.

Eta aterkia luzatu zion Sam-i, oparitzen ziola adieraziz. Ez ziola ordaindu beharko adieraziz, egin zuen keinuarekin. Baina Sam-ek, ez zion hartu. Geratu egin zen une batez bere ibilbidean, eta begietara begiratu zion Charlie-ri, eta eskerrak eman zizkion isiltasun haren bitartez, begiekin bakarrik. Baina aurrera jarraitu zuen, isiltasunean, euri azpian. Galtzeko ezer ez daukanaren ausardiarekin. Gaixotuko ez dela ziur dakien hildakoa bezala.

Etxe eta eraikin grisak gurutzatu zituen bere bidean. Euriak difuminatutako paisaia eta pertsonak. Malkoek bigundutako farolak. Eta aurrera egin zuen paisaia desolatu hartan, euriak bere smoking txuria pixkanaka gris bihurtzen zuela erreparatu gabe. Pianozko piramide bat egiteko lehengaia daraman esklaboa irudi.

51.eko 17.era iritsi zenean, Chester, Ray eta Gunter topatu zituen egun hartan ere. Zerura itzultzen ez zen euriari begira. Euren ipurdi beltz handientzako lain ez ziren aulkitxo txuri eta txikietan eserita. Euriarengandik babesten zituen balkoiaren azpian zeuden. Sam-ek ez zituen agurtu, ez zien ezer galdetu. Baina Chesterrek, ohi bezala, erantzun egin zion, ia ezpainak mugitu ere egin gabe:

—Euriari aurre egiteko —euriari aurre egiteko ari zirela zigarrotxo erretzen, alegia.

Sam-ek hirurei begiratu zien, mespretxuz.

—Ze euri? —esan zien. Eta aurrera jarraitu zuen, galderaren erantzuna itxaron gabe, 51.ean behera, euri azpian, kolako piano txuri astuna arrastaka eramanez.

Ile-apaindegiaren paretik pasatzean, barruan, Marvin ikusi zuen, kristaletik. Kristalean iragartzen zen pintura txuriko esaldiaren atzean, euriak tolestutako letra haien atzean: "*Marvinen ile-apaindegia. Urteko 445 egunetan irekia*". Marvinek eskuin eskua altxa zuen, agurtuz. Solemneki. "Sentitzen dut" esanaz bezala. Eta Sam-ek agurra itzuli zion. "Eskerrik asko" erantzungo balio lez.

Marvin atzean utzi, eta ezkerretara hartu zuen lehenbizi, eta eskuinetara ondoren, eta 39.aren bukaeran zegoen semaforora iritsi zen Sam. Eddie-k izozki bat zeukan eskuan, jada. Marrubizko izozki bat. Sam-entzat. Prest iritsi zenerako. Sam-ek, ordea, ez zion hartu. Irribarre batekin eskertu zion, halere, asmoa, eta aurrera jarraitu zuen bere bidean.

Piano txuria arrastaka, txarolezko zapata beltzak zikinduta, smoking txuria gristua, hezurretaraino bustia eta aurpegi goibelarekin, baina harro, zutik, tente, duin, Sam, Bronx-eko kale grisak atzean utzita, Manhattan-eko kale grisetan barneratu zen, Harlem ibaia zeharkatu ondoren.

Sam-ek eskumuturrean ez zeukan ordularian, goizeko zazpi eta erdiak ziren. Manhattan-en ez zegoen arimarik. Ez behintzat Sam-en begietara. Eta auto, kamioi, taxi, tranbia, sirena, bizikleta eta oinezko guztiek zarata handia, baina bakarra, egiten zutela zirudien. Oihu isil bat bezala. Marru etsi bat. Isiltasuna baino isilagoa zen zarata bat. Eta Sam-ek, bere isiltasunean, oihuka zihoan bakarra zirudien.

Itsaso zakarrean, olatu erraldoiei erresistentziarik jartzen ez dion naufragoa bezala. Azken egur zatiari, inertziaz bakarrik helduta dagoen naufragoa.

Bi kale ezkerretara hartu, bat gora, eta, azkenean, helmugara iritsi zen Sam: 5th avenue-ra. 76. metro geltokia —New York Public Library— dagoen parera. Pianoa bere betiko txokoan kokatu, txaketa pixka bat astindu, ura behintzat eror zekion, eta, pajarita ondo lotu ondoren, aulkitxo txuriaren gainean eseri, eta azken 37 urteetan egunero egin zuen legez, "New York, New York" abestia jo zuen.

Gero, "What a wonderful world" joko zuen. Takoi gorri batzuk amestuz. Euri azpian elur maluta bat imajinatuz.

What a wonderful world, bai, what a wonderful world, pentsatuko zuen. Bizitzak, batzuetan, horrelako ironiak oparitzen dizkigu.

Eta, bukatzeko, "As time goes by" kantatuko zuen, Manhattan-eko azken prostitutak etxera itzultzen ziren orduan.

*Ipuin honek 2003. urteko Ipuin Saria eskuratu zuen **Donostia Hiriko Kutxa**
Literatur Sarietan.

URTE BERRI ON, OSWALDO!

Koadrilako lagunei

Oswaldo Mata liburu-dendara sartu zenean urduri zegoen oso. Soilgunetik ere, izerdia zerion eta esku biak poltsikoan zeramatzan dardara disimulatzeko. Bere metro eta hirurogei zentimetro eskasak jaka beltz batean bilduta, berez zena baino txikiagoa zirudien. Apaletan zeuden liburuei begirada azkar bat eman zien, kortesiaz edo. Ezezagun bati “zer moduz familia?” galdetzen zaion moduan. Eta erakusmahaira hurbildu zen segituan.

Erakusmahaiaren bestaldean 50 bat urteko gizon bat zeukan, ilezuria. Liburu bat irakurtzen ari zen betaurrekoak sudurraren puntan ipinita, liburu-saltzaile guztiak bezala. “Las bicicletas son para ver anos” izenburua zeukala irakurri ahal izan zuen. Ezaguna egiten zitzaion. Irribarre egin zuen liburu-saltzaileak falta zitzaion hortza erakutsiz. Hortz bat falta zitzaiola erakutsiz. Liburu grazioso nonbait. Eztul herabeti bat egin zuen dendako isiltasuna bortxatuz eta liburu-saltzaileak lepoa jiratu zuen mugimendu ia minimo batez. Betaurrekoen gainetik Oswaldo Matari begira geratu zen txintik esan gabe.

— Egun on —hasi behar izan zuen Oswaldok.—Liburu bat aurkitu nahian ari naiz.

Liburu-saltzaileak ez zuen ezer esateko intentziorik adierazten. Oswaldok izerditan zeuzkan eskuak poltsikoetan. Mingaina lehorra. Atzealdera begiratu zuen dendan inor ez zegoela baieztatzeko.

— “Kulerorik gabeko emakume baten abenturak eta kalenturak” liburua erosi nahiko nuke. Oparitzeko da.

Oswaldo Mata zabor-biltzailea zen, bere aita izan zen bezala. “Hobe zabor-biltzaile, zaborra izatea baino” esaten zuen hark. Gizon jakintsua zen Oswaldo Mataren aita, baina ez zeukan liburu-dendetara sartzeko ohiturarik. Kaleak eta bizitzak ematen dituzten lezioetatik ikasitakoa zen hura. Eta hala hezitakoa izan zen Oswaldo Mata bera ere. Izan ere, liburu-denda batera sartzen zen bigarren aldia zen. Eta urduri jartzen zuen liburu-saltzailearen jarrera pasiboak. Hezurretaraino sartzen zitzaion bertako isiltasuna, zabor kamioi artean lan egiten ohituta.

— Begira, jauna. Liburu baten bila ari naiz.

Liburu-saltzaileak irakurtzen ari zen liburuaren orrialde bat pasa zuen.

Oswaldo Matak bere aitak esandakoa gogoratu zuen bere burua lasaitzeko. “Pazientziak gaztelu handienak eta armada boteretsuenak gainditu ditu”. Gizon jakintsua zen Oswaldo Mataren aita. Tonu baxua mantenduz, liburu-saltzaileari ume bati hitz egiten zaion moduan zuzendu zitzaion:

— Begira, jauna. Ni Oswaldo Mata naiz. Zabor-biltzailea. 45 urte ditut eta bakarrik bizi naiz.

Liburu-saltzaileari grazia egin zion komentarioak edo liburuak. Bitako batek. Irribarre egin zuen behintzat. ”Pazientzia, Oswaldo, pazientzia” pentsatu zuen Oswaldo Matak berekiko.

— Duela hilabete, zabor artean aldizkari pornografiko bat aurkitu nuen eta bertako orri artean, iragarki bat zegoen. ‘Maitasuna bilatzen duzu? Sexuak ez zaitu asebetetzen? Harreman egonkor bat nahi duzu, ezta? Guk daukagu zuretzako soluzioa. Etorri “La puerta trasera” gure liburu-dendara eta eskatu “Kulerorik gabeko emakume baten abenturak eta kalenturak” liburuak. Ulertuko dizugu. Diskrezioa eskatzen da.’

Orria pasa zuen liburu-saltzaileak jaramonik egiten ez ziola adierazi nahi balio bezala. Igogailu batean elkartu eta eguraldi ona egiten duela esaten dion bati erantzuten ez dion horietakoa zirudien. Polboroen bokata bat baino lehorragoa. Oswaldo Mata burugogorra zen, ordea.

— Putetxeak, ezkontza-agentziak, egunkarietako harremanen iragarkiak, Internet bidezkoak... denak probatu ditut. Baina alperrik. Ez dut nahi nuena lortu. Desesperaturik ez banengo, ez nuke bide hau hartuko. Iragarki hau da nire azken aukera. Zuk honen berri ez baduzu, oraintxe bertan joango naiz eta hemen bukatuko da gauza. Bestela, zer demontre eskaintzen duzuen jakitea gustatuko litzaidake, mesedez. Asko eskatzea ez bada behintzat.

— Hunkigarria.

— Zer?

— Zure diskurtsoa. Benetan hunkigarria.

— Ondo izan —Oswaldo Mata aterantz abiatu zen.

— Itxaron, itxaron.

Liburu-saltzailea pausu motelarekin mugitzen hasi zen. Kaleko atea itxi eta karteltxo bat jarri zuen, “Oraintxe nator” leloarekin. Eskuarekin keinu bat egin zion Oswaldo Matari jarrai ziezaiola eskatuz. Erakusleihotik ikus ez zitekeen dendako txoko batera eraman zuen, eta bertan, liburuak lekuko bakar, ahots ia entzunezin batez mintzatu zitzaion.

— Leku egokira etorri zara. Orain ikusiko duzuna ez da ohiko gauza bat. Gerta daiteke honetarako prestatua ez egotea, baina ulertuz gero.... —isilune bat egin zuen esaten ari zenari garrantzia eman nahi balio bezala.— Baina ulertuz gero, zoriontsu biziko zara zure bizitzak irauten duen egun guztietan. Hori bai, hemen ikusitakoari buruz...

Behatzekin ahoa kremailez ixteko keinua egin zuen. Oswaldo Matak keinu bera errepikatu zuen.

Liburu-saltzailea liburu baten bila hasi zen apalean. “Irteerarik gabeko tunela” liburua atera zuen eta geratu zen hutsunean zegoen palanka bati eragin zion. Filmetan bezala ireki zen pareta, alde batera. Eskailera batzuk ikus zitezkeen beherantz, iluntasunean.

Hemeretzi eskailera jaitsi zituzten beheraino iritsi arte. Behean zirela, argindarra konektatu zuen liburu-saltzaileak.

Izugarri handia zen hura. Liburu-denda bera baino hamar aldiz handiagoa izango zen. Izozkailu erraldoiak ziruditen aluminiozko kaxak zeuden lerroka jarriak. Liburu-saltzaileak bisita turistiko gisa, batetik bestera eraman zuen Oswaldo Mata, baina paisaia bera zen beti. Ezkerretara izozkailuak. Eskuinetara ere bai. Leku berdinetik pasatzen ari balira bezala.

— Ez galdetu nola, baina kontua da izozkailu erraldoi hauetan emakumeak dauzkagula. Emakume izoztuak. Ganbak bezala —irribarre egiten zuen liburu-saltzaileak. Oswaldo Matak ez zekien zer aurpegi jarri.— Izozkailu bakoitzean 8 emakume dauzkagu, 8 emakume bider 105 izozkailu; 840 emakume. Oso ondo, matematiketan bikain. Baina jadanik saldu ditugu batzuk, beraz, gutxiago geratzen dira —Oswaldo Mata non sartu zen ulertu

nahian ari zen. Bere aitaren esana gogoratu zuen orduan, “Ez dakianean zer esan, isilik egon”. Gizon jakintsua zen Oswaldo Mataren aita.— Ez jarri urduri, bezero maitea —jarraitu zuen liburu-saltzaileak—, emakume hauek ez daude hilda, izoztuta soilik. Baina izoztuta egoteaz gain, programatuta daude. Txip bat daukate burmuinean —Oswaldo Matak botalarria zeukan eta ez zen oroitzen egoera horietarako aitak esandako ezertaz.— Batzuk obedienteak izateko programatuak daude, besteak astean behin haserretzeko programatuak, badaude sadomasokistak izateko programatuak daudenak eta baita mutuak ere. Gehienak, hala ere, emakume normal baten jarrera izateko programatuak daude; noizean behin haserretu, noizean behin larrua jo, noizean behin negar egin, noizean behin obeditu, eta, agian, bat edo beste adarrak jartzeko programatua ere egongo da, ez dakit ziur. Benetako maisulanak dira. Baina zein da orduan hauen eta emakume arrunt baten arteko desberdintasuna, galdetuko diozu zeure buruari —Oswaldo Mata ez zegoen bere buruari ezer galdetzeko moduan.— Ba, emakume hauek guk esaten diegun pertsonaz maitemintzen direla! Ez al da zoragarria lagun maitea? Akabo gure kokojanak, akabo emakume bat kamelatzeko hiru urte pasa beharra. Amodiozko gutunak ez dakizkizula idazten? Opariak egiten gustu txarra daukazula? Herabetia eta itsusia zarela? Berdin dio dagoeneko. Oparitan aurreztuko duzun diruarekin eros dezakezu orain bizitza guztian maiteko zaituen emakume bat. Nork esan zuen diruak ez dakarrela zorientasuna? Hau ikusi ez zuen kabroiren batek, seguru! Zer uste zenuen, bezero maitea, informatika Internet soilik zela, ala? 2000. urtearen atarian, eta, zer uste zenuen, informatika telebistak dioen bezain motel doala? Hau da informatikaren benetako ekarpena eta ez Internet eta txorakeriak!

Oswaldo Mata zorabiatzeko zorian zegoen, izerditan blai. Eseri egin behar izan zuen arnasa sakon hartu eta errekuuperatzeko. Liburu-saltzaileak ur baso bat eskaini zion. Oswaldok tragoz irentsi zuen.

Argazki album bat zirudien liburu lodi bat eman zion. Orri bakoitzean emakume baten argazkia, neurriak, izoztuak izan zirenean zuten adina, programatutako gustu pertsonalak eta bere jarrera nolakoa izango zen azaltzen zen.

— Datuak 1-etik 10-erako eskalan daude —argitu zion liburu-saltzaileak. Oraindik, irribarre anker hura zeukan ezpainetan. Hiruzpalau irakurri zituen Oswaldo Matak, liburu-saltzaileak esandakoari jaramonik egin gabe.

Matilde. Beltzarana. 92-60-88. 35 urte. Gustu pertsonalak: bakailao musika, festak eta zinema. Obedientzia maila: 6. Sexu gosea: 9. Maitakorra: 7. Haserrealdi kopuruaren batezbestekoa asteko: 2. Langilea: 6. Ordenatua: 4. Hizlaria: 7.

Susana. Ilehoria. 100-60-100. 30 urte. Gustu pertsonalak: sexua, drogak eta rock musika. Obedientzia maila: 5. Sexu gosea: 10. Maitakorra: 6. Haserrealdi kopuruaren batezbestekoa asteko: 1. Langilea: 0. Ordenatua: 0. Hizlaria: 9.

Helena. Ilehoria. 95-62-90. 28 urte. Gustu pertsonalak: zinema eta irakurketa, Leonard Cohen, bidaiatzea. Obedientzia maila: 7. Sexu gosea: 9. Maitakorra: 7. Haserrealdi kopuruaren batezbestekoa asteko: 3. Langilea: 6. Ordenatua: 6. Hizlaria: 6.

“Ez da txarra” pentsatu zuen Oswaldok berekiko, “baina bidaiatzea garesti dago gaur egun...”.

— Zure gustuen berri eman ez gero, lagun diezazuket —esan zion liburu-saltzaileak, orriak banan-banan irakurtzen ari zela ikusi zuenean eta etxean zain zeukan “xerra enpanatua, arrautza frijituekin, bi kroketa eta patata frijituak” platerarekin gogoratuz. Ondo programatua zegoen bere Isabel maitea, gero! Eta asteartearen zenez, mamadatxo bat tokatzen zitzaion...

— Ba ez dakit, agian, kirol pixka bat gustatzen zaionen bat edo...

— Aaaa, badakit... zuretzako primerakoa Ariadna litzateke. Irakurri, irakurri...

— Ariadna, beltzarana, 100-70-100. 32 urte.

— Titi ederrak eta ipurdi galanta, e!

— Gustu pertsonalak: kirolzalea, igande arratsaldetan irratitik partiduak entzutea gustatzen zaio, eta gauez partiduen laburpenak ikustea.

— Ez da txarra, e? Baina segi, segi...

— Obedientzia: 10. Sexu gosea: partidarik ez dagoenean soilik. Maitakorra: 6. Haserrealdi kopurua: bere taldeak galtzen duenean. Langilea: 8. Ordenatua: 9. Hizlaria: kirolari buruz gehienetan.

— Eta, gainera, zuk nahi duzun taldekoa izan dadin programa dezakegu. Asko saltzen dira honelakoak! Zer deritzozu?

Hura guztia ez ote zen txantxa arraroren bat izango pentsatzen hasia zegoen Oswaldo Mata, baina jadanik sartu zen zurrunbiloan, eta horrelakoetan, gauza jakina da: zurrunbilo batetik ateratzea zaila da, ez bazara barruraino joaten. Bere aitak esaten zuen bezala, “Kartzelara bazaramatzate, hiltzailea zarelako izan dadila, ez errugabea zarelako”. Jakintsua zen, izan ere, Oswaldo Mataren aita, kaleak eta bizitzak emandako lezioetatik ikasitakoa. Eta Oswaldo Matak kasu egiten zion noski haren esanei.

— Ez, ez, kirolariegia —esan zion Oswaldo Matak.

— Mutu bat, agian? Horiek ere arrakasta handia dute gure bezeroen artean...

— Ez, ez... Nik zerbait normalagoa nahi nuke. Zerbait arrunta, sinplea.

— Aaaa, badakit! Zuk Mari Pili bezalako bat nahi duzu. Bizitza lasaia emango lizukeen emakume bat, ezta ? Irakurri, irakurri...

— Beltzarana. 90-60-88. 36 urte. Gustu pertsonalak, gizonarenak. Obedientzia maila:10. Sexu gosea: 7. Maitakorra: 9. Haserrealdi kopuruaren batezbestekoa asteko: 0. Langilea: 10. Ordenatua: 10. Hizlaria: 3.

— Zer iruditzen?

— Ona da, bai, ona da. Atsegin dut.

— Ba, zu zarelako prezio berezi bat egingo dizugu. Kontuan hartuz bizitza guztirako dela, Mari Pili bezalakoak gutxi geratzen zaizkigula, eta regateatzeko gogorik eta denborarik ez dudala, 12 milioitan utziko dugu gauza.

— Hamabi milioi!!

— Gure ale onenatariko bat da! Zer uste duzu, hau putetxe bat dela, ala? Ez al zara konturatzen bizitza guztirako dela? Zure ametsetako neska zutaz maiteminduta bizitza guztirako, eta 12 milioi asko iruditzen al zaizu! Oparietan ere ez duzu xentimorik xahutu beharko-eta! Gainera, ez nago denbora galtzeko, joder. Egongo da erosi nahi duenik, barra-barra saltzen ari gara-eta.

— Lasai, lasai. Ez da garestia iruditzen zaidala, horrenbeste diru ez dudala baizik.

— Ba, denbora galtzen ari gara orduan, zeren guztiak dira hamar milioitik gorakoak.

— Ez da posible! Edukiko duzue merkeagoren bat...

— Merkeago! Barkaidazu, baina erotuta zaude bezero maitea. Eta gainera gose naiz... —esan zuen liburu-saltzaileak, mamadarekin gogoratuz.— Baina itxaron —bat-batean zerbaitetaz oroitzen denaren aurpegia jarri zuen.— Agian, zuretzako, ez bazaizu axola... Uste

dut geratzen zaizkigula pare bat... Bai, begira. Bi hauek Mari Loli eta Cristina, bi hauek izan daitezke zure poltsikorako egokiak. Milioi bat bakoitza.

— Milioi bat? Joño, hori beste gauza bat da. Baina zer dela eta horrelako diferentzia? Ea, ea, utzi irakurtzen.

— Ez, ez. Ez da ezaugarriengatik. Kontua da bi hauek, modelo zaharrago batekoak direla eta ez daudela programatuak 2000. urtea pasatzeko.

— A ez? Eta zer gertatuko zaie, ba, 2000. urtea iristen denean?

— Ez dakigu ziur. Normalean geratu egingo dira eta kitto. Horregatik dira horren merkeak. Alokairu bat bezala kontsidera daiteke. 2000. urterako 4 hilabete gelditzen dira, beraz, 4 hilabeteko alokairua litzateke. Hilabete bakoitzeko 250000 kobratzen ari natzaizu. Ez dut uste asko denik.

— Ez dago gaizki...—zioen Oswaldo Matak bi emakumeen ezaugarriak irakurtzen zituen bitartean. Mari Loli. Ilehoria. 80-70-90. Gustu pertsonalak: bihotzeko aldizkariak irakurri, ile-apaindegira joan eta auzokoak kritikatzeara. Obedientzia maila: 4. Sexu gosea: 6. Maitakorra: 6. Haserrealdi kopuruaren batezbestekoa asteko: 4. Langilea: 4. Ordenatua: 6. Hizlaria: 10. Eta Cristina. Beltzarana. 90-62-92. Gustu pertsonalak: irakurketa, jostea, sukaldaritza. Obedientzia maila: 9. Sexu gosea: 7. Maitakorra: 9. Haserrealdi kopuruaren batezbestekoa asteko: 0. Langilea: 9. Ordenatua: 9. Hizlaria: 5. Azken hau gustatzen zitzaion, eta liburu-saltzaileak nabaritu egin zion aurpegian.

— Pentsa ezazu 4 hilabeteetan paradisuari biziko zarela, eromenez maitatuko zaituela. Obedientea izango zaizula, ez dizula lata gehiegirik emango. Gainera, kristoren afariak egingo dizkizu, sukaldaritza gustukoa du-eta! Etxea garbi mantenduko dizu, eta noizean behin... Ulertzen didazu, ezta? Ba, hori guztia 250.000-gatik hileko. Ganga hutsa da... Honekin proba egin, eta atsegin baduzu, gero, hamabi milioitako hori eros dezakezu. Nola zen...? Mari Pili edo..., Mari Loli edo..., hori.

Ez zuen gehiegi pentsatu Oswaldo Matak. Argazkian neskak zeukan irribarre xamurrak segituan konbentzitu zuen. Bere aitak zioen bezala, “emakume polit baten irribarre batek urrea balio du”. “Milioi bat aita, milioi bat...” pentsatu zuen berekiko Oswaldo Matak.

— Ongi da, ongi da. Cristina eramango dut, baina erosi aurretik galdera bat? Cristinak ezagutzen duen norbaitekin topo egingo balu?

— Berak ezin du inor ezagutu, memoria ere programatua baitauka. Dazkan oroitzapen guztiak programatuak izan dira. Hemendik aurrerakoak bai, horiek memorian gordetzen joango da. Eta gehiago esango dizut. Inork ezin du Cristina ezagutu. Zergatik? Erreza. Cristina, 1899an jaio zelako. Eta bera ezagutu zutenek ez dute 35 urteko Cristina espero, 100 urteko Cristina baizik. Bizirik dagoela pentsatzen badute behintzat. Nola pentsatuko dute gazte mantendu dugula denboran zehar?

— Ondo da, ondo da. Baina azken zalantza bat daukat: non arraiotik atera dituzue emakumeak?

— Nondik? —lehenago irribarre maltzur bera egin zuen, berriz, liburu-saltzaileak.— Nondik izango da, ba? Umeak datozen leku beretik, motel: Paristik.

VISAekin ordaindu zuen, “Kulerorik gabeko emakume baten abenturak eta kalenturak” izena zuen liburu bat erosi izan balu bezala, kontu korrontean horrela erregistratuta gera zedin. Eta Cristinari eskutik helduta, etxerantz abiatu zen. Kanean, farolen argiek euria ari zela salatzen zuten, eta han, euripean, bere bizitzako lehen musua jaso zuen Oswaldo Matak. Artean, 1999. urteko irailaren 7a zen, asteartea, eta Oswaldo Matak zoriontasunaren gailurra ezagutu zuela pentsatu zuen. Bere aitak zioen bezala, “Zoriontasuna ez da dirua. Zoriontasuna musu bat da. Irribarre bat.” Gizon jakintsua baitzen Oswaldo Mataren aita.

Lehenbiziko egun lotsatien ondoren, paradisia bihurtu zen eguneroko bizitza Oswaldo Matarentzat. Goizean goiz zaborra jasotzera ateratzen zenean, ohean Cristina ikusteak sortzen zion irribarrea eta begietako poza, ez zitzaion egun guztian zehar desagertzen. Itzultzen zenerako, Cristinak etxea jaso eta afaria prestatua izaten zuen. Hala eta guztiz, sarritan, afaldu ere egin gabe, desioak hartuta, larrua jotzen zuten sphagetti eta tomate artean. Zazpi kilo argaldu zen honela Oswaldo Mata 2 hilabetetan.

Zoriontasun horretan murgildurik, ohartu gabe iritsi zitzaion abendua Oswaldo Matari, neguko hotza igarri ere egin gabe. Kolonia eta jostailuen iragarkiek gabonak bertan zirela adierazten zuten. Mundua bukatuko zela zioten profeziak ugaritu egin ziren, 2000. urtera iristeko falta ziren egunak gutxitzen zihoazen heinean. Suizidio kolektiboen berriek ere egunkarietako lehen orriak merezi zituzten. Eta hondamen izugarrien iragarpenak nonahi izan

arren, mundu guztia milurteko berriaren festa ospatzeko prest agertzen zen, batere kezkarik gabe gehienak. Oswaldo Mata ez zen horietakoa, ordea.

— *...denok entzun dugu 2000. urteak kaos informatikoa ekarriko duela euren informazio sistema egokitu ez duten enpresetan, baina inork gutxik daki oraindik, zein den kaos informatiko horren arrazoia. Markus doktorea, mesedez, azalduiguzu, ikus-entzule guztiek jakin dezaten, zergatik sor daitekeen kaos informatiko hori 2000. urtea hastearekin batera.*

— *Gustura azalduko dizuet. Gauza da, enpresetako informazio sistemek datak manejatzen dituztela. Eta arazoa datak konparatzean dator. Enpresa bateko informazio sistemak 2 digitu soilik erabiltzen baditu datak adierazteko, 00 urtea ordenagailuarentzat 1900. urtea izango da 2000. urtea izan beharrean. Adibide batez azalduko dizuet. Enpresa batek 2000. urteko urtarrila baino lehen egindako eskakizunak jakin nahi baditu, 1999ko eskakizun guztiak ez zaizkio azalduko, 99 urtea 00 urtea baino handiagoa delako. Informazio sistemak 99an egindako eskakizunak 2000.ean egindakoak baino beranduagoak direla interpretatuko du...*

— *Beraz, etxean ordenagailu pertsonalak dituzten milioika eta milioika ikus-entzuleak lasai egon daitezke alde horretatik.*

— *Bai, gehienak bai. Ordenagailuetako BIOS-ean data 2 digituetan dutenek soilik izango dituzte arazoak, eta hau ordenagailu oso zaharretan bakarrik pasatzen da. Ordenagailu hauek ez dira piztuko 2000. urteko lehen egunaz geroztik...*

Pixa-parrastada eten zitzaion Oswaldo Matari, elkarrizketa hau entzutean. Sorpresaz harrapatu zuen, atentziorik gabe entzuten ari eta bat-batean zure izena diotenean bezala. Katetik tira eta telebista itzali zuen amorruz, goizeko iratzargailua itzaltzen den gisan. Gero, argia piztuta erdi lo zetzan Cristinaren ondora joan zen. Begietan musu eman eta argia itzali zuen. Gau hartan ez zuen lorik egin.

Abenduko azken egunak etsipenez bizi zituen Oswaldo Matak. Dena amaitzear zegoenaren pentsamenduarekin. Bere azken egunak disfrutatu nahi dituen eta ezin duen hiltzera kondenaturikoa zirudien. Cristinari ezin zion ia aurpegira begiratu malkoz betetako begiak ez erakustearren. Zetazko azala zeukan aurpegia laztantzen zion hitzik esan gabe gauero, lo hartu arte, eta hurrengo goizean esnatzen zenean begietara begira aurkitzen zuen

Cristinak Oswaldo Mata, gau guztia horrela egon balitz bezala. Irribarre egiten zion eta muxu gozo bat ematen zion Cristinak, ezertaz ohartzen ez denaren inozentziaz.

Egunak joan, egunak etorri, lanera joateko indarrak ere xahutzen joan zitzaizkion Oswaldo Matari, eta abenduko azken astean, ezin izan zuen jadanik Cristinaren albotik banandu. Besarkatuta ematen zituzten egunak eta gauak, elkarri begira, denborak aurrera egitea galarazi nahi balute bezala. Baina abenduak ere, 31.ena jo zuen halabeharrez.

Oswaldo Matak ez zuen azken eguna ohean negarrez pasa nahi izan, eta Cristinari janzteko agindu zion. Atera behar zutela. Paseatzen eman zuten egun guztia hirian, jendearen algara eta ezinegon artean anonimo eta zoriontsu sentituaz. Afari berezi bat egingo zutela eta, erosketak egin zituzten. Langostinoak, rapea eta xanpain frantsesa erosi zuten. Moët Chandom. Traje bereziak erosi zituzten, etxean afaldu behar zuten arren. Smoking grisa Oswaldo Matarentzat. Soineko beltz dotorea Cristinarentzat. Galtzontzilo, kulero eta sujetadore gorriak ere erosi zituzten, 2000. urtea maitasunez betetako urtea izan zedin. Gauaren hasierarekin batera etxeratu ziren, afaria prestatu eta urteari amaiera emateko asmotan. Oswaldo Matak ez zuen Cristina goibel ikusi nahi, eta barrua jaten zion galdera irribarre batekin ezkututzen saiatu zen, azken egun zoriontsu bat oparitzeko asmoz. Zer gertatuko zitzaion hamabietako kanpaiak jo ondoren?

Afaria zoragarria izan zen. Kandelak, xanpaina eta Cristinak prestatutako langostinoak plantxan eta rapea saltsa berdean. Egia zen sukaldari bikaina zela. Maitale bezain bikaina. Postrerako, marrubiak xanpainetan bustiak.

Afaria amaitu zutenean, Cristinak bigarren xanpain botila eta bi kopa hartu, Oswaldo eskutik heldu, eta bainugelara eraman zuen. Eranzten ziren bitartean, ur beroz bete zuten bainera; aparra sortu zuten xaboiarekin. Patiotik telebista entzuten zen, urte berriaren berehalako etorrera erretransmititzen. Baineran sartu ziren poliki, ura kanpora isurtzeko beldurrez.. Eserita besarkatu ziren apar artean. Cristinak xanpaina isuri zuen burutik behera, lepotik zehar titietaraino likido likitsaren azkura xamurra sentituz. Oswaldok titimutur bustiak miazkatu zizkion. Cristinak intziri ahul bat egin zuen. “...*hamabi minutu soilik urte berrirako, hamabi minutu mende berri bat hasteko eta hamabi minutu soilik milurteko berrirako! Eromena nagusi da hemen, xanpain, serpentina eta oiuhu artean dantzan eta saltaka ari diren milaka gazte eta ez hain gazteengan...*” Cristinak bere burua atzerantz bota zuen, baineran

etzanda jarriz, eta Oswaldoren zakil tentetuak ur azpian Cristinaren alua bilatu zuen. “...*adi egon ikus-entzuleok, milurteko guztirako zorte on edo txarra hamabi kanpai-hots hauekin batera jaten dituzuen mahats aleen menpe egongo da-eta...*” Bi buruak ur azpian, bi gorputzak bat, ezpaineak topo egin zuten, mingainen jolas lizunen estalpe. “...*hauek ez dira! Oraindik ez hasi! DOOOONGG! Orain! Orain!*” Oswaldok gora eta behera egiten zuen Cristinaren gainean, bainerako ur erdia kanpora isuriz “*DOOOONGG! DOOOONGG! DOOOONGG!...*” Arnasestuak, aiene leunak, intziri ahulak, uraren txaplatekoak, aparraren soinu ia entzunezina. Azkena izan zitekeen besarkada, azkena izan zitekeen musua. “*DOOOONGG! DOOOONGG! DOOOONGG!...*” Eta hasperen, intziri eta malko artean, batera isuri ziren, gorputzak dar-dar batean zituztela, hamabigarren kanpai-hotsarekin batera. “*DOOOONGG! Urte berrion guztioi! Mende berri on eta milurteko berri on ikus-entzule!!!*” Kanean jendearen oihu eta algarak nabarmenak egin ziren. Baineran, Oswaldok eta Cristinak besarkatuta jarraitzen zuten, arnasaren jario normala berreskuratu nahian. Cristina arnasa hartzen ari zela ikusita, barrez hasi zen Oswaldo, beldur guztia kolpez joan bailitzaion.

— Maite zaitut, Cristina, maite zaitut!!! —zioen pozez mozkor, algara eta malkoak ezin ekidinez.— Ondo zaude, ondo zaude?

Cristinak, ordea, ez zioen ezer, edo ez behintzat zentzuzko ezer. Bere horretan jarraitzen zuen baineran, irribarre inozo harekin, ezer esan nahi ez zuten eta zeharo ulertezinak ziren silaba nahastuak soilik ahoskatuz. Oswaldo Mata serio jarri zen. Nabaria zen zerbait gertatzen zitzaiola. Baineratik atera eta Cristinari ere, hala egiteko eskatu zion. Cristinak, ordea, ez zion kasurik egiten. Xaboiarekin jolasean ari zen jostailu bat bailitzan. Eta eskuez bainerako ura astintzen zuen barre egiten zuen bitartean. Orduan, bat-batean, telebistan entzundako elkarrizketa harekin gogoratu zen Oswaldo Mata, “...*00 urtea ordenagailuarentzat 1900. urtea izango da 2000. urtea izan beharrean...*”, eta dena ulertu zuen kolpez. Cristina 1899. urtean jaiotakoa zen eta programatu zutenean, bi digitu soilik jarriko zizkioten urteen kontua eramateko. Eta, noski, orain 2000. urtera iristean, 1900. urtea zen Cristinarentzat. Eta zenbat urte zituen Cristinak 1900. urtean? Urtebete ere ez! Umetxo jaioberri bat zeukan orain, 35 urteko emakume baten gorputzarekin! Horregatik zioen liburu-saltzaileak ez zuela 2000. urtea gainditzen!!

Baineratik atera, lehortu eta ohera eraman zuen. Negarrez eta marruka ari zen; ez zitzaion, antza, baineratik ateratzea gustatu... Txupeterik sikiera eduki izan balu!!

Ordu-erdi luze baten ondoren loak hartu zuen Cristina, azkenean. Oswaldo Mata sofan etzan zen argirik piztu gabe. Isiltasuna erabatekoa zen. Nekatuta zegoen eta akats bat, akats bat soilik egin zuela pentsatu zuen. Bere aitak zioen bezala zapatak eroatera joaten ziren bakoitzean “Hobe da garestiak eta bizitza guztia iraungo dizutenak erostea, merkeak eta bi astetan izorratuko zaizkizunak erostea baino.” Ai...! Kasu egin izan balio... Izan ere, gizon jakintsua zen Oswaldo Mataren aita.

IGO GAILUA

*Y haremos el amor
en una cama de cristal
a orillas del mar.*

J. Sabina

Eliri

Oraindik ondo gogoan daukat topo egin genuen lehendabiziko aldia. Ezkaratzean gurutzatu ginen, Maddalen haurtzaindegira neramala. Zu, esku batean maleta bat eta bestean bi zenituela, okerturik zindoazen, oreka konpentsatu nahian edo. Zure amak berriz, ezin zuen bere bi maleta erraldoiekin.

—Egun on —esan nizuen amultsuki. —Zuek izango zarete bizilagun berriak, laugarrenekoak?

—Bai, bai... —erantzun zidan zure amak arnasestuka.

—Ba, ongi etorri! Ni Ana naiz, hirugarren pisukoa, eta hau Maddalen da —hartu nion aurre zure amari, arnasa berreskuratzeko denbora izan zezan, nire alaba aurkezten nizuen bitartean. —Ea Maddalen, egin kasu bizilagun berriei.

Gogoan daukat Maddalenengana makurtu nintzenean, kasu egin ziezazuen, eskotera bota zenidan begirada hura. Badakit ez nengoela zuri begira, baina emakumeok gauza horiek, ikusi gabe ere, nabaritu egiten ditugu.

Gogoan daukat nola begirada horrek nigan ez zuen mespretxuzko sentimendurik sortu. Alderantziz, gogoan dut konplitu gisa hartu nuela, 23 urteko mutil gazte baten begiratu lizun hura. Eta gau horretan, ispiluaren aurrean bularretakoa kendutakoan, oraindik titiak nahiko irmoak neuzkala esan nion neure buruari —38 urte izateko— , nire senarrak ohean egunkaria irakurtzen zuen bitartean. Kaikua! Gogoratzen naiz senarraren laztanak bilatu nituela, baina azken urteotan gertatu bezala, Maddalenen jaiotzatik gutxi gorabehera, ez nuela... ‘Utzi, utzi, orain ez. Ba al dakin bebeuvearen akzioak nola igotzen ari diren? Elkartu zirenetik, ez ditun geratu!’ moduko komentario triste bat besterik jaso. ‘Gu elkartu ginenetik berriz, hire akzioak ederki jaitsi dituk ba!’ pentsatu nuela oroitzen naiz. Ondo oroitzen naiz, bai, zure begiratu gogoratuz soilik hartu ahal izan ninduela loak, nire senarrak bere interes aurpegi higuigarri horrekin egunkariaren ekonomia orriak erreparatzen zituen bitartean.

Eta horregatik uste dut izan zintzaizkidala gustukoa hasieratik. Horregatik eta zure bakeroek markatzen zuten ipurdi mamitsuarengatik. Zeren egia esan behar badut, hozka egiteko moduko ipurdia daukazu, bigarren egunera arte ohartu ez banintzen ere.

Igogailuan egin genuen topo. Laugarren pisutik beherantz zindoazela hirugarrenean geldiarazi nizunean. Ni Maddalen haurtzaindegira eramatera nindoan, zu unibertsitatera.

—Egun on.

—Egun on.

—Zer moduz etxe berria? Instalatu al zarete?

—Bai, beno, oraindik gauza guztiak hankaz gora daude, baina bueno...

Isilunea.

—Zer zoaz, unibertsitatera? —galdetu nizun besapean zeneraman karpeta seinalatuz.

—Bai, filosofia ikasten ari naiz, laugarren maila.

—Etxea ez dakit gustukoa duzun, baina, behintzat, unibertsitatetik gertu bazaude...

—Bai, hori da onena, oinez joan naitekeela...

Igogailutik, Maddalen eta bion aurretik atera zinen, presaka bezala, elkarrizketa deseroso hari amaiera lehenbailehen eman nahian edo. Eta orduan erreparatu nuen zure ipurdian. Ipurdian. A ze ipurdia! Levi Strauss-ak ondo betetzen zenituen, gero!

Hurrengo egunetan, behin baino gehiagotan egin genuen topo igogailuan, ordu berdinean ateratzen baikin en etxetik. Elkarrizketa tipikoetatik pasatzen ez ginen arren, gustua hartu nien topaketa haiei. Titietara ia disimulurik gabe begiratzen zenidala kontuan hartuz, oraindik gehiago. Aspaldiko partez desiratua sentitzen bainintzen.

Makilatzen hasi nintzen pixka bat. Gehiegi ere ez. Urte batzuk kentzeko adina soilik. Arropak zaintzen saiatzen nintzen. Bakero estuak batzuetan, gonak besteetan. Imajinarioari bidea ematen zioten azken botoia lotu gabeko alkandorak. Ilea moztu nuen. Polita ikusten nuen nik ere neure burua. Gaztetua. Hamazazpi urte nitueneko garaiak zetozkidan gogora, oraindik musuek zirrara sortzen zidatenekoak. Laztanek —edo edozein kontaktu minimok—, oraindik, hunkitzen ninduteneko garaiak. Astelehen hartako laztan inozente hark hunkitu ninduen bezala.

Astelehen hartan oraindik asteburuko alfer ajea gainean neraman. Gogoan daukat hirugarren pisuan gelditu eta Maddalen eskutik helduta nuela sartu nintzenean, igogailuak ez zuela behera abiarazi nahi izan, lehendabizikoz botoia sakatu nuenean. Biok batera joan ginen, bigarrenez, behera joateko botoia sakatzera eta orduan egin zuten topo gure eskuak. Zure eskuaren epeltasuna gogoratzen dut. Epeltasun horren zirrara gorputz guztian zehar. Azkar erretiratu zenuen eskua, ‘barkatu’ lotsati batekin.

Edo berandu esnatu eta presaren eraginez Maddalen eskutik ia zintzilik neraman egun hartakoa. Gogoan daukat igogailutik batera irteten saiatu ginela eta atearen estutasunarengatik gure gorputzek elkar ukitu zutela, modu ia ezin nabari batean, ipar haizeak emandako laztan hotz baina zirrargarri bat bezala. Hezurretaraino sartzen zaizuna. Hotzikara eta guzti.

Edo karpeta erori zitzaizun hartakoa, alkandora zuri gardena eta bularretako beltzak neramatzala igogailura sartu nintzen udaberriko goiz eguzkitsu hartan. Gogoan daukat gure lepoek elkar usaindu zutela karpeta jasotzera makurtu ginenean. Gure belaunek topo egin zutela, Maddalenen irribarre jostaria lekuko zelarrik. Lurrera begira mantendu zenuen soa, nirea ezin eutsiz. Ze herabetia zinen!

Poliki-poliki eguneroko gure topaketa inozo haiek ezinbestekoak bihurtu zitzaizkidan. Bizirik mantentzen ninduen ura. Eta egunero-egunero, igogailuaren botoia zapaltzen nuenean, halako ezinegon bat sentitzen nuen, hemen, sabel aldean, aurkituko ez zintudanaren beldurrez edo. Eta igogailuko atea irekitzea, leihora atera eta zer eguraldi zegoen ikustea bezala zen, ona edo txarra, eguzkitsua edo lainotua.

Eta ezinbesteko egin zitzaizkidan neurrian, urriegiak bihurtu zitzaizkidan gure topaketak. Gehiago nahi nuela ohartu nintzen. Ez nintzela kontaktu kasual eta elkarrizketa inozo haiekin soilik konformatzen. Urrunago joan nahi nuela. Horretan, egia esan behar bada, nire senarrak ere lagundu zuen. Inozo konpletoa egina zegoen. ‘Lana lana da’, ‘Enpresa ez da bere momentu onenean’, ‘Altxa beharra dago’, ‘Kontuan izan, sozioetariko bat naizela’ eta honelako beste mila eta bat aitzakiarekin, geroz eta beranduago etortzen zen etxera. Hamaikak pasatuta sarri. Tuntuna nintzela pentsatuko zuen! Gizonezkoen iparrorratza horrenbeste denbora geldirik egotea posible izango balitz bezala! Nori engainatu behar zion, ba, babo horrek? Beti esan izan dut gizonezkoentzat monogamia, bizitzan zehar hautsi beharreko arau horietako bat dela. Lehertuko dira bestela!

Eta gauzak horrela, nork esan behar zidan niri ezer, nire lakrikunkeria samur haiengatik! Hamabost urteko umeen jolasak ziruditen limurkeria joko haiengatik! Ezta pixka bat aurrerago joatea erabakitzen banuen ere!

Honela erabaki nuen iniziatiba gehixeago hartzea. Kontaktu fisikoa probokatzea. Zu tentatzea. Probokatu nahi zintudan, eszitatuz, berotuz, emakumeok hain ongi menperatzen ditugun arma horiek erabiliz. Zuk urratsik ematen zenuen ikusteko. Gehiagorako prest zeunden jakiteko. Horretarako bakarrik. Ez nuen ezer gehiago nahi. Hori lortzeko gai nintzen ikustea soilik. Nire erakargarritasuna bizirik zegoela bermatzea. Urrutirago joan gabe. Karamelua erakutsi eta azken unean ezkutatzea. Hori zen nire plana. Eta zu zinen umea. Karamelua gustagarri zitzaion edo ez esango zidan umea.

Eta jo eta ke hasi nintzen karamelua eskaintzen. Lehenbizi, igogailuko topaketak ziurtatzen, eta gero, topaketa haiek esanguratsuagoak izan zitezten ahalegintzen.

Eskutokikoa izan zen lehen ahaleginetariko bat. Igogailuan gindoazen, nola ez, eta zuk eskua paretan, gerri altueran dagoen eskutoki ñimiño horretan zeneukan ipinita. Nik ia disimulurik gabe, paretan ezartzera nindoanaren itxuraz, ipurdia eskuaren gainean jarri nizun, eta bertan mantendu nuen, beheko solairura iritsi ginen arte. Ezertaz ohartu ez banintz bezala. Mutu geratu zinen, noski, baina ez zenuen eskua erretiratu!

Gero, "kasualitatezko" kontaktuak probokatzen hasi nintzen. Zu igogailutik ateratzen zinen une berean hasten nintzen ni ere ateratzen. Edo Maddalenengana makurtzen nintzen igogailuaren espazio urria aprobetxatu eta ipurdiarekin zure izterren laztana bilatzeko. Edo errazagoa eta naturalagoa oraindik, zure beso gihartsuak ukitzen nituen nire eskuez, zerbait esan eta barreari ezin eutsiz nengoela irudikatuz. Tuntuna nintzela ere pentsatuko zenuen behin baino gehiagotan.

Egia esan behar bada, makina bat trikimailu asmatu nituen —eta ni, emakumeon armak jadanik ahaztuta nituelakoan!— nire burua ere harrituta uzteraino. Eta karamelua gustagarria gertatu zitzaizula esango nuke zure jarrerarengatik. Bai jauna, zuk ere, kolaboratu egiten baitzenuen topaketa "kasual" haiek gerta zitezen.

Azkeneko barregarriak eta guzti ziren gure arteko txoke eta 'ai, barkatu' hain ugariak. Biok ere irribarre egiten genuen eta Maddalen barrez lehertzen zen topo egiten genuen bakoitzean. Eskerrak egiten ari ginenaren kontzientziarik ez zuen...

Eta eguneroko topaketa haiek bizirik mantentzen ninduen ura baino, bizirik mantentzen ninduen droga bilakatu ziren. Geroz eta gehiago izan, orduan eta gehiago behar nituela ohartu bainintzen. Eta eguna, niretzat, goizeko bederatziak hamar gutxiagotan amaitzen zela esan liteke, igogailuko atea beheko solairuan ireki, eta kalean behera pausu azkarrez zindoazela bistaz galtzen zintudanean. Goizeko bederatziak hamar gutxiagotan. Jende gehienarentzat eguna hasi besterik egin ez denean, hain zuzen. Gainontzeko orduak une bera oroituz ematen baintuen. Eta gauekoak berriz une hura amestuz. Zenbat aldiz bustiko ote nituen izarak, igogailuan zure egiten ninduzula amestuz? Eta nire senar kaikua ohartu ere ez! Bere emazteak amets lizunak? Nola ba?

Nola ez nituen ba edukiko amets lizunak? Eta maiatzaren 6 hartatik oraindik gehiago. Gogoratzen al zara zer gertatu zen egun horretan? Ziur naiz baietz. Arratsaldeko seiak eta erdi-edo ziren. Etxera bueltan nindoan beste egun aspergarri bat jasan ondoren Maddalen eskutik helduta nuela, eta ezkaratzean, gutxitan gertatu zitzaidan bezala, zurekin egin nuen topo. Zu ere etxera zindoazen, unibertsitatetik bueltan. Eskuarki, bederatzieta iristen zinen,

eta horregatik egiten genuen topo horren gutxitan arratsaldez, baina egun horretan, ez dakit zein arrazoirengatik, seiak eta erdietarako zindoazen etxera. Gu hirurok ez ezik, bosgarren pisuko aitona-amonek ere ordu bera aukeratu zuten etxeratzeko, eta, beraz, bostok sartu ginen igogailuan. Igogailua, ordea, txikia izaki, nahiko estututa sartu behar izan genuen. Hori ikusirik eta bista handiarekin, zu atzealdera joan zinen, eta niri zure aurrealdean jartzeko tokia egin zenidan ezkerraldean aitona-amonak ipiniz. Maddalen boston erdian kokatu genuen. Segituan ohartu nintzen zure intentzioaz, belaunarekin nire izterra laztandu zenuenean. Ez nuen duda-izpirik izan. Pausu txiki bat eman nuen atzeraka, ia ikusezina, eta, era berean, gorputza pixka bat okertu nuen, bular alde aurrera bota eta ipurdia atzeraka ateratzeko. Nahikoa zure zakil sendo tentearekin bat egiteko. Ile guztiak tinko jarri zitzaizkidan kristoren elektrikara eman balit bezala, zure zakiltzar gogortuaren laztana nire ipurdiaren kontra sentitu nuenean. Eskua atzera eraman eta zure tramankulua nire hatzez ukitzeko desira kontrolaezina sentitu nuen bat-batean intuitiboki, baina aitona-amonak begira geneuzkala konturatuta, uko egin nion nire asmoari. Maddalen eskutik helduta neukala ere ez nintzen ohartzen eta! Egia esan behar bada, orain, une hura gogoratzean, grazia eta guzti egiten dit horrelako eszena sensuala nola aitona-amona eta alabaren aurrean eraman genuen pentsatzeak, baina gau horretan, nahiko buelta eman nituen ohean, alabaren aurrean horrelako gauzak egiteagatik, azkenean, arratsaldekoa gogoratuz izterondoak laztantzea ezin ekidin izan banuen ere. Burukoari egindako horzkadek ez zuten eragotzi nire intziri dardaratia senarraren zurrunga artean gailentzea. Entzungo ote zuen!!!

Enpin, niretzat behintzat, zoragarriak izan ziren gisa honetara eman genituen hiru hilabeteak, ez dakit zuretzat hala izan ziren. Gaztea izanik oraindik biziko dituzu honelakoak hamaika, eta baita gehiago ere, baina igogailuko gure topaketa haiek bezain bereziak ez dut uste izango direnik. Kostako zaizu... Nik diotsut, ezkondu baino lehen, hamaika probatutakoa izan naiz-eta ni ere.

Baina nork daki, agian zure bizilagun berrien artean, egun argiz itsasoan biluzik amodioa egitea gustatzen zaion neska gazteren bat aurkituko duzu eta igogailuko gure abenturak huskeriak soilik irudituko zaizkizu... Ni baino gazteagoa izango ote da!! Azal ximurtzen ari ez den bat-edo!! Noizean behin gogoratuko ote zara, behintzat, gure artean izandakoarekin... eta, batez ere, ostegun gau harekin...

Ostiralean etxez aldatu behar zenutela esan ez bazenit, errenta merkeagoko beste pisu batera zindoaztela esan ez bazenit, ez dut uste ostegunean gertatu zena inoiz gertatuko zenik. Ezta? Gure jolas haiek geroz eta urrunago eraman genituen pixkanaka, baina ez ginen ausartu

inoiz jolas haiek amaieraraino eramatera, ez ginen ausartu laztan haiek elkarri begira egitera, igogailuaren atera begira egon gabe, ezta Maddalenen begirada zelatari, baina, era berean, lasaigarria zen begirada haren babesik gabe, bai baikenekien bere begiradapean ez ginela urrunago joango, bagenekielako bere begirada hark gure jolasei garrantzia murrizten ziela, jolasak soilik ez ziren haiek jolas bihurtzen zituela, alegia.

Eta horrela jarraituko genukeen seguruenik, egunak joan eta egunak etorri, zuk neskalagun serio samar bat aurkitu eta jolas haiek albora utziko zenituen arte. Eta horrela amaitzea okerragoa eta guzti zatekeen niretzat, seguru, nire buruari aurrerago joan ez izana leporatuko bainioke. Bai, tuntuntzat hartuko nuke nire burua, ez nintzelako nire ametsak egia bihurtzera ausartu izan, eta beste hamar urte fantasia erotiko txoroekin masturbatzen jarraituko nuke, nire senarrak ekonomiako orrialdeak irakurtzen zituen bitartean. Eta tuntuna, tuntuna naiz! errepikatuko nioke nire buruari galdutako aukera gogoratuko nuen bakoitzean.

Baina zuk emandako notizia hark dena aldatu zuen, niregan, bederen. Egoera beste ikuspuntu batetik ikustera eraman ninduen. Ostiralean bazindoazen! Han amaitzen ziren zure ipurdi mamitsua laztantzeko aukerak. Akabo zure zakil bortitza nire ipurdi masailen artean sentitzea. Bukatu zen zure izter gihartsuen fereka igogailutik ateratzerakoan. Nire titiburu gogortuen laztana zure sorbaldaren kontra. Akabo guztia.

Amaiera hain gertutik ikusteak eraman gintuen ostegun hartara. Ez duzu uste? Ostegun goizean ‘gaueko hamaiketan zaborra jaistera ateratzen naiz’ ez zenidan esango, bestela; eta esanda ere, ez nizun jaramonik egingo, ostegun hura elkar ikusiko genuen azken aldia ez balitz. Baina hala zen. Eta horregatik esan nizun baietz buruarekin, —hitz egitera ausartu ez eta— hamaiketan ondo zetorkidala, igogailua noiz irekiko zain egongo nintzela aditzera eman nahian.

Hamaiketan puntuan entzun nuen zure atearen danbatekoa ixterakoan. Ni dagoeneko igogailuaren aurrean nengoen, galtza bakero arrunt bat eta mahuka motzeko niki gris bat soinean neramala. Eskuan zabor-poltsa. Ez nintzen ausartu dotoreegi janztera. Senarra etxean zen eta zaborra jaisteko gona motza-edo janztea gehiegizkoa iruditu zitzaidan. Gainera ez nizun zita hark niretzat zeukan garrantzia erakutsi nahi. Zer pentsatuko zenuke... Beraz, pollit, baina sinple jantzi nintzen. Makilaturik, baina ez igartzeko adina. Eta igogailuari pasatzen utzi nion gorantz, botoirik sakatu gabe, horrenbeste goizetan Maddalenek eta biok egin genuen bezala.

Igogailuko argia pasa zen, atea nola ireki zenuen entzun nuen, nola itxi zen. Eta nola igogailua beherantz abiatu zen, eta nola ni nengoen hirugarren solairura mantso-mantso jaitsi zen sentitu nuen, leun-leun, kamara geldoan bezala, nire parean geratu zen arte. Eta nola dardara batek hartu zuen nire gorputza goitik behera, igogailuko atea ireki eta ikusi zintudanean, zure Levi-Strauss urdin higatu horiekin, eta zure azalaren beltzarana indartzen zuen mahuka motzeko niki beltz harekin, ezker eskuan zabor-poltsa sostengatuz. Arnasa sakon hartu eta barrura sartu nintzen.

Ate bat gurutzatzea, sarri, ez da toki batetik bestera iragatea soilik...

Beherantz joateko botoia sakatu zenuen. Isilik. Txintik esan gabe. Nire begietara so. Ni zeureetara. Bigarren pisura arte honela joan ginela gogoratzen dut. Baina lehen pisura iristerako jadanik zeure besoetan nengoen. Zeure ezpainetan. Inoiz musurik eman ez duen emakumea bezain sutsu, artega eta kontent aldi berean; bero, baina hotzikaraz betea. Eta beheko solairura iritsi orduko, berriz, geldi, igogailuko atera tinko zuzendua gure begirada. Igogailura igotzera zihoan inor izu ez zedin. Ez zen inor agertu, ordea, eta, beraz, lurrean utzi genituen zabor poltsak hartu eta 'container' erantz abiatu ginen biok, presaka joango bagina bezala, pauso motz eta azkarrak emanez, parez pare, elkarri begirada konplizeak oparituz, irribarre lotsatiak. Eta korrika bueltatu ginen, ezkaratzera lehenbizi eta igogailura ondoren, lekukorik gabeko gure maitasunezko paradisura.

Paradisuak ez dira, nahitaez, hondar zuriko eta ur gardeneko itsasertzetan aurkitzen...

Eta bosgarrenera joateko botoiari sakatu zenion, biotako inor bertan bizi ez arren. Eta gorantz gindoazela hankazpian hazkura sentitu nuen. Eta zure beso gihartsuek besarkatu ninduten, zure ezpain haragitsuek musukatu, aspaldian sentitu ez nuen berotasunez, 23 urteko gazte bati darion desiraz. Eta laugarren solairua igaro genuen, gorantz beti. Eta bosgarrenera iritsi aurretik STOP!!, STOP botoia sakatu zenuen, nigandik apartatuaz. Eta igogailua laugarren eta bosgarren solairuen artean geratu zen. KIETO.

Badira denbora gelditu denaren inpresioa ematen duten momentuak...

Begietara begiratu zenidan. Serio. 23 urteek salatzen ez zuten heldutasunaz. Eta kondoia atera zenuen poltsikotik. Kondoia erakutsi zenidan. Baimen eskaera bat izan zen, eta zure gainera jauzi eginez erantzun nizun. Niki beltza erantzi nizun, ondo egindako zure gorputza ikustearren, laztantzarren. Zapatilak kendu zenituen. Gerrikoa askatu nizun. Levi-Strauss higatuak jaitsi. Zure izterren beroa sentituaz, zure ipurdia laztantzeko unea aprobeztatuz. Zure zakil handituak galtzontziloen diktadura erauzi nahi zuen. Libre izan nahi

zuen. Eta haiek ere, erantzi nizkizun. Galtzetinetan geratu zinen, arropa guztia hankazpian zeneukala. Eta nik atzera egin nuen —metro karratu bateko igogailu batean atzera egin baldin badaiteke behintzat— baina ez beldur nintzelako, alderantziz, maisulan hura ikusteko perspektiba izan nezan. A ze zakila! Lehertu beharrean zegoen gainera!

Ez zenidan pentsatzeko denborarik eman, ordea. Besoetan hartu ninduzun, airean, eta polliki, lurrerantz eraman ninduzun, nire bizkarrak igogailuko zoruarekin bat egin zuen arte. Zapatilak kendu zenizkidan eta segidan galtza bakeroak, hankak gorantz luzatuta nituela. Ondoren nire parera belaunikatu zinen, eta astiro, oso astiro, indartsu etorritako olatuak, atzera itzultzerakoan hondarrari egiten dion laztanaren leuntasunaz, kulero txuriak kendu zenizkidan, suabe-suabe. Horrekin soilik, isuri nintzen ia. Baina ez. Ez zen hasi besterik ere egin hura. Zutik jarri ninduzun. Kamiseta grisa kendu zenidan. Bularretakoa nik askatu behar izan nuen zuk bularrak laztantzen zenizkidan bitartean. Larrugorritan geunden biok, edo hobeto esanda, galtzetinetan. Lurreko arroparen gainean zutik.

Ordutik aurrerakoa ez dut sekula ahaztuko, eta zenbat aldiz oroituko!! Nola zure beso gihartsuek altxa ninduten airean. Nola paretaren aurka ipinita sentitu nuen lehenbiziko aldiz zure zakilaren osoa nigan. Nola nire lehen isurketaren ondoren lurrera eraman ninduzun, oraindik zure zakil ondo tenteak, guda asko eman nahi zuela adieraziz. Nola metro karratu batean etzan ginen biok, arropen gainean, kabitu ezinik, kea ere zerigula, gorputzean generaman berotasunaz. Nola laztandu ninduzun, nola musukatu, horzka txiki haiek emanaz... Nola miazkatu zenizkidan titiburuak, belarrietako lobuluak. Nola laztandu zenizkidan izterrak, adatsa, aurrera eta atzera mantso-mantso egiten zenuen bitartean. Aurreraaaaaaa eta atzera. Aurreraaaaaaa eta atzera. Aurrera egiterakoan, han, aurrean, segundo batzuk mantenduz. Nola usaindu zenidan lepoa, nola musukatu zenizkidan begiak... Emakume batentzat, amodioa egitean, bere bikoteak maitasuna erakustea, zer garrantzitsua den jakingo bazenu bezala. Sexuaren kontzeptu guztiak —23 urterekin...!— garbi bazenitu bezala. Noiz gelditu. Noiz segi. Noiz arre. Eta noiz so. Hiru aldiz isuri nintzen hogeitun minututan. Zoriontsu egin ninduzun hogeitun minututan.

Gezurra dirudi minutu batzuek bizitza oso bati eman diezaioketen zentzua.

Hurrengo goizean ez zen kasualitatea izan ezkaratzean topatzearena. Argi esan baitzenidan bezperan, hamarrak eta erdiak aldera alde egingo zenutela. Laurdenetatik aiduru egon nintzen, badaezpada ere. Ez nuen nahi agurtu gabe joaterik. Ezkaratzetik ateratzen hasi

zinetenean, sartzen ariko banintz bezala egin nuen. ‘Barkatu. Pasa, pasa’ esan nizuen amari eta bioi pasatzen utziz. Iritsi zineteneko maleta berdinekin zindoazten orain ere.

— Zer, bazoaztela ezta? —galdetu nuen jakingo ez banu bezala...

— Bai —erantzun zidan zure amak. —Errenta garesti samarra soldata bakar batentzat eta beste merkeago bat bilatu beharrean izan gara.

— Eta aurkitu, aurkitu duzue, antza denez...

— Bai, bai. Honen erdia baino gehixeago soilik ordaindu beharko dugu. Hori bai, lekua txarragoa da, unibertsitatera autobusez etorri beharko du honek, pisua ere txikiagoa...

— Eta ez dauka igogailurik —moztu zenion amari, niri begietara so.

— Eta ez dauka igogailurik, ez. Baina, bueno, uste dut guretzako nahikoa dela. Gure adinean ez gara igogailu...

Zure amak hortik aurrera esandakoari ez nion jaramonik egin. Jokoz kanpo utzi ninduen zure komentarioak. Tuntundua. Zuri begira mantendu nuen soa, zure amaren hitzek nire garunean oihartzuna nola egiten zuten sentitzen nuen bitartean. Zure irribarrerik onena eskaini zenidan. Zure gainera jauzi egin eta musu emateko inpultsoa sentitu nuen supituki, baina neure burua kontrolatu behar izan nuen zure amak agurtzeko eskua eskainiz neure onera ekarri nindueanean.

—Ondo izan.

—Ondo izan, bai —errepikatu nuen hitz-totelka.

—Ikusi arte —esan zenidan zuk ere, eskua eman ez eta patuari berriz elkar ikusteko aukera eskainiz.

‘Agur’ soil bat esatera asmatu nuen justu-justu. Zure eskuaren epelak bezperako irudiak ekarri baitzizkidan gogora, esku haren laztana nire hankartean, beso haren besarkada altxa ninduzunean, hatz haien ibilbidea nire sabelean behera, aluraino. Hotzikara gozo batek hartu zuen nire gorputza eta autora hurbiltzen —nigandik urruntzen— ikusi zintuztedan. Eta azken aldiz begiratu ahal izan nion zure ipurdiari, zure ipurdi mamitsuari, ipurdiari.

Ondoren, ezkaratzera sartu eta igogailuaren botoia sakatu nuen. Eta zain nengoela, oinez igotzea hobea ez ote zen izango otu zitzaidan.

Orain, beti, eskaileretatik igo eta jaisten naiz Maddalen eskutik helduta dudala. Maddaleni berari, ez zaio axola, eta senarrarekin noan aldietan, klaustrofobia ematen didala esaten diot. Ostegun gau hartan bat-batean gelditu zenetik, ez dudala beldurra gainditu. Eta ez diodala igogailu bezala, traste horri zentzurik hartzen, igo gailu gisa ez bada bederen. Eta barre egiten diot aurpegira, babo horri, nire hitz jokoa ulertzeko inozoegia dela baieztatzen dudan bakoitzean. Eta gauza bera errepikatzen diot, kaiku aurpegia desagertzeke duela, oraindik gehiago haserretu dadin. 'Eskailerak, gainera, sanoagoak dira'. Esandakoarekin ni ere, ados egon ez arren.

AMODIOZKO GUTUNA

amari

Iñaxio maitea:

Zemouz zaude? Beti bezela irrifartsu ta alai, seguruna! Izketan baño geyo bertsoan iten ingurukuak nazkatu arte! Ni, ze esangoizut ba, ondo ez. Betiko martxan. Bakizu, nobedade andirik gabe. Esnatzian, gosaldu, ta rebista txoro oyek letzen ematen det goiz erdiya, telebistai beira ezpada. Ta gero, bazkaya iten distraitzen naiz, radiyua piztuta detela. Konturatu naiz, asko laguntzen ditela norbaiten aotsa gertutik aditziak. Ez dakizu zuk zer dan norbean urratsen oiartzuna bakarrik entzutia! Isiltasunak ematen baitu bakardadian neurriya, Iñaxio, isiltasunak.

Eguerdi partian beintzat, gure Kontxita etortzen zait bisitan nola nagon ikustera ta kontu batzuk esaten dizkit ta zerbait distraitzen gera sikiera. Lenguan, gañera, Ainararekin etorri zan. Ze maja dagon gure billoba, Iñaxio. Or ari da inglesa gora ta inglesa bera, 5 urte besterik ez dazkan arren. Izan'e orain eskoletan inglesa ta frantsesa, euskera baño leno erakusten baitiyete. Ola altxako degu euskalerriya, bai, zuk esaten zendun moduan. JELOU amona esaka sartu zan etxian, EGUNON natural bat esan biarran. Ta agurtzian'e, GUKBAI eo olako zerbait esan zian. Nik'e alaxe erantzun niyon. GUK'E BAI! Ta antxe jun zan gustoa!

Gañuntzian, ba ori, alako debilidade punttu bat sentitzen det, baño normala da ori, meikuak ardua ta pastelak ta gustatzen zaiten guztiya debekatu baitit. Zerbaiten pozakin'e bizi berko deu ba guk'e! Obe lueke meiku auek geatzen zaigun apurra ondo bizitzen lagatzia, apur ori alperrik luzaaaatzen saiatzia baño. Ze luzatzia ez dakit lortuko duten, baño luzio iruitzia seguru nago baietz! Enfin, ze esangoizut ba zuri, ortik pasatakua zera ta zu're.

Ai, Iñaxio, zure falta somatzen det ikiaarri. Bakarrik sentitzen naiz, Iñaxio. Lenguan, igandero bezela alabak pasiara atea nindunian, Tenteneko baserriya zegon lekutik pasa giñan. Zegon diyot, orain MAXI oyetako bat baitao bere orde. Ez dezu sinistuko baño nearrez asi nitzan txoruan mouan. Tenteneko metan atzian lardaxkan nola ibiltzen giñan gogoratu nitzan derrepente ta ezin izan niyon nerrari eutsi. Ayek bai garayak Iñaxio, ayek bai garayak. Ta segidan, Ayako mandiyuan naiko dantza inda gero, Santa Barbara ermitaraño jun giñan artakuaz oroitu nitzan. Nola euritan in gendun bide guztiya, eskutik elduta, Zarautz gañian trumoyak ta tximistak eroitzen ikusteko. Goraño nola iritsi giñan ezurretaraño bustita ta nola besarkatu ninduzun euri azpiyan. Ta an, Zarautz lanbrotu ura beyan, ta trumoi ta tximista ayek

buru gañian kolpeka genitula, nola eman zenidan iñoiz eman didazun musurik gozoena. Oraindik goguan det zure ezpain bustiyen kontaktu beroa. Ezetasun otz aren berotasuna. Ta nola belar busti aren gañian bat egin gendun, gure asierako arnasestua, trumoi otsen gañetik Zarautz guztiyan entzuterañoko ulu ta aiene biurtu arte. Pasatako pulmoniya naiko kastigu izango ote zan goikuak eramaten gaitunian egindakuak kontuan ez artzeko!

Ai, Iñaxio, barre egiten det orain au eskribitzen ari naizela, baña lengo igandian ezin izan niyon nearrari eutsi. Ta gure Kontxitak zer nun galdetzen zian, zer nun orrela jartzeko. Nola esplikatu bear niyon nik burutik pasatzen ari zitzaitena? Nola esan zure eguneroko kariñoa falta zaitela. Senitarteko batek emateik ez dun kariño berezi ori. Falta zaitela. Bear detela. Nola esplikatu zure zurrunkak bear ditutela loak ar nazan. Tartian-tarteko zure petralaldiyak. Inguruan zaudela somatzeko. Or zaudela sentiaraziko didaten zure marmarrak gutxienez! Nola azaldu bear niyon zure albuan esnatzia baño gauza zoragarriyorik ez dagola munduan. Begiyak irikitziyan zure azal ximeldua nirearen onduan aurkitzia. Sentitzia. Ezer ez zitzaitela pasatzen esan niyon malkuak sekatzan zizkidan bitartian. Uzteko pakian.

Erotzen asiya naizela pentsatuko zun. Ta arrazoi izango du igual. Zertan ari ote natzaizu bestela, nora bidali ere ez dakiten karta au eskribitzen. Agiyan zure izena jarri ta karteruak jakingo du nora eraman. An egongo zera, seguruna San Antoniyon onduan, gure billobak ea ondo arrejuntatzen ditun bijilatzen. Beti gustatu izan baitzaizu kontu oyetaz enteratzia, beti izan baitzera kuskusero xamarra, Iñaxio. Kuskusero zoragarriya, dudarik gabe.

Ba orixe jarriko det postazalian, bai. Iñaxio Martirikorena. Zerua. San Antonion ondora. Ta depaso musu bat bialiko dizut kartakin batera. Santa Barbarako artan erraietan iltzatu zenidana bezelakoa. Euri azpiko muxu bat zure billoben inbirik izan ez dezazun ni allatzen naizen bitartian.

Lasai, Iñaxio, segituan naiz ta or.

Aztu ezin zaituen,

Margarita

Gutun honek Bergarako **amodiozko gutunen X Berrigara lehiaketako** lehen saria eskuratu zuen, 2002. urtean.

*Baina ez. Ez da egia. Aulkian ez dago gizonik, ez inor.
Irudimena da guzia.*

J. Sarrionaindia (Estazioko begiradak. Narrazioak)

LIBURU HAU EREINek ARGITARATU ZUEN 2004. URTEAN

BERTOL ARRIETA ©